


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KORRUPZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA JASANGARRITASUN MEMORIETAN

EKIMENEN AZTERKETA KORRUPZIOAREN
IKUSPUNTUTIK

Gradu Amaierako Lana

Ekonomia eta empresa fakultatea-Donostia

EGILEA: ENDIKA DEL PRADO OTAOLA

ZUZENDARIA : AINHOA GARAYAR ERRO

2015-2016

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN GARRANTZIA ETA EBOLUZIO HISTORIKOA .4	
2.1 Gizarte Erantzukizunaren ikuspegiak	7
2.2 Gizarte Erantzukizunaren eremuak Espainia mailan	14
3. GIZARTE ERANTZUKIZUNA ENPRESAN	17
3.1 Munduko ituna	17
3.2 ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat.....	21
3.3 AA1000	24
3.4 SA8000	26
3.5 EMAS	30
3.6 ISO 26000	32
3.7 Global Reporting Initiative	36
4. KORRUPZIOA	37
5. GIZARTE ERANTZUKIZUNA SUSTATZEKO EKIMENEN AZTERKETA KORRUPZIOAREN INGURUAN	47
5.1 Korruptzioaren azterketa Gizarte Erantzukizunaren ekimen ezberdinetan oinarrituz	53
6. ONDORIOAK	60
7. BIBLIOGRAFIA.....	64

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Gizarte Erantzukizunaren piramidea	6
--	----------

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Gizarte Erantzukizun sozialaren teoria nagusiak	7
2. Taula: Munduko Itunean parte-hartzearen abantailak	18
3. Taula: ISO 26000-ren ezaugarri nagusiak	34
4. Taula: Ekimenen konparazio taula	54

1. SARRERA

Gaur egun, gizarteak jasaten ari den egoera nahiko konplikatua dela esan dezakegu. Gero eta ohikoagoa da korrupzio kasuaren bat entzutea eta badirudi Gizarte Erantzukizunaren kontzeptuak kolokan gelditu dela. Ematen du gizarteak arazo hauek alde batera uzten duela eta ez zaiela inporta. Baina nire ustez ahaztu behar ez den kontzeptua da eta hori ekarri nau mota honetako lan bat egitera.

Gizarte Erantzukizunaren kudeaketa erakunde edo enpresen ardura garrantzitsuenetakoa da eta erakundeek edo enpresek gero eta arduratsuagoak izan behar dira gizartearekin eta ingurugiroarekin.

Esan daiteke, beraz, gradu bukaerako lan honen helburuetako bat, Gizarte Erantzukizunaren eboluzio historikoa nolakoa izan den eta kontzeptua zertan datzan azaltzea. Ondoren, Gizarte Erantzukizuna lantzeko eta aurrera eramateko hainbat ekimen sortu direla denboran zehar eta lan honen beste helburuetako bat hau izango da, Gizarte Erantzukizunarekin erlazionatuta dauden zazpi ekimen aztertuko ditut.

Jarraian, Gizarte Erantzukizunaren atalean azertu ditudan giza adierazleak jakin-mina sortu didate, baina bereziki korrupzioa. Beraz, korrupzio gaian zentratuko naiz eta sakonago aztertuko dut. Horregatik, esan dezaket, lanaren beste helburuetako bat hau izan daitekeela.

Hurrengo atalean, atal enpirikoan, aurrez aztertutako ekimen horietatik bat sakonago aztertzen saiatuko naiz, bereziki GRI ekimena. Hau posiblea izango ez balitz, azertu ditudan ekimen guztiak berriz aztertuko ditut, baina orain korrupzio ikuspuntutik. Korrupzioa gai hain garrantzitsua izanda ekimenek nola lantzen duten ikusteko.

Azkeneko atalean, ondorioetan, lan osoa egin ondoren gai honi buruz ikasi dudana eta zer ondorio atera ditudan aipatuko ditut.

Erabilitako metodoa bilaketa bibliografikoan oinarritu da, ikuspuntu deskriptibo bat erabiliaz, eta baita kritikoa, GE-ren analisisian bai eta korrupzioaren gaia aztertzeke orduan.

2. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN GARRANTZIA ETA EBOLUZIO HISTORIKOA

Gizarte Erantzukizunaren (hemendik aurrera GE) hasiera autore batzuen ustez 20.hamarkadaren hasieran finkatzen da, konkretuki 1923.urtean Oliver Sheldon-ek argitaratu zuen lanean. Sheldon-ek esaten zuen kudeaketaren oinarritzko erantzukizunak sozialak zirela. Autoreak nabarmendu zuen gizarte elementuen etika eta betebeharrak, gerenteak haien menpekoak justiziarekin eta zintzotasunez tratatu behar zuela ezarriz.

Garai berdinean, Mozas eta Puentes-en lanak erreferentzia egiten du 1923.ko Carroll-en lanari esaten duena GE-ren lehenengo aztarnak 50.hamarkadaren hasieran aurkitzen zirela, enpresa-munduko eskandalu nagusiak eman zirenean, 1953.urtea finkatzen du zehazki. 1953.urte berean, Bowen-ek “ *Social Responsibilities of the Businessmen*” lana argitaratu zuen enpresarien betebeharrei buruz.1986.ko Frederichk-eko eta 1999.ko Carroll-eko lanean, autoreek etapa honi “*etapa filosofiko*” izena ematen diote. Garai honetan GE termino abstraktu baten modukoa definitzen da, etikan eta moralean oinarrituta.

60.urteetan zehar, GE-ren garrantzia alde batera gelditu zen eta lehentasuna eman zioten berriz kudeaketaren alderdi ekonomikoari zeinean enpresaren helburu nagusia mozkin altuenak lortzea zena eta ez zegoena lotuta GE-ri. Garai horretan ulertzen zen enpresa batek dirua gastatzen bazuen gai sozialetan enpresa horrek bazkideen mozkinen kontrarako egiten zuela. 1970.ko Friedman-en eta 2001.ko Henderson-en lanak pentsaera hau babesten zuten (A. Mozas eta R. Puentes, 2010).

70. hamarkadaren hasieran, lehenengo lan enpirikoak burutu ziren eta kontzeptua europar esparruan barneratzen da, hala ere, hainbat aldaketekin,bereziki gai sozialei nahiko mugatuta eta horregatik garai honetan balantze sozialak garrantzi handia hartu zuten.

Hainbat autore nabarmendu ziren bere lanekin. Horien artean 1971.ko Steiner-ren lanari erreferentzia egiten zaio eta GE-ri buruzko definizio bat eman zuen. Bertan esaten zuen enpresek erakunde ekonomiko funtsezkoenik jarraitu behar zirela izaten, baina gizarteari lagundu behar zutela haien oinarritzko helburuak lortzen eta beraz, gizartearekin erantzule izango ziren. Bestalde, 1979.ko Carroll-en lanean GE eredu

tridimentsionala proposatu zuen eta ahalbidetzen zuen enpresen hurbilketa GE-ren terminora. Honela definitu zuen: *“Enpresen Gizarte Erantzukizunak momentu konkretu bateko aukera ekonomikoak, legalak, etikoak eta aukerakoak hartzen ditu.”*


80. hamarkadan, teoria, eredu eta termino asko formulatu ziren GE-ri buruz, hala nola, erantzukizun publikoa, sentikortasun soziala, etika enpresariala, partaideen teoria, herritartasun enpresariala ... e.a. Garai honetan azpimarratzekoak diren autoreak Carroll, 1983.ko lana, eta Freeman, 1984.ko lana, dira.

1983.urteko lanean Carroll-ek zehatzago definitu zuen GE, esanez, GE barneratzen duela negozio bat egitea, ekonomikoki errentagarria dena, legearen aurrean adeitsua, etikoa eta gizartearekiko solidarioa. Horregatik, gizartearekiko arduratsua izateak esan nahi du errentagarritasunak eta legeari obediencia izateak beharrezkoa dela enpresaren etika eztabaidatzeko eta sozietateak ematen duen dirua, denbora eta gaitasunaren gradua neurtzeko. Bestalde, Freeman-ek 1984.ko lanean Stakeholder- en Teoria proposatu zuen eta esaten zuen enpresak ez dituela bere helburu eta estrategiak finkatu behar soilik bazkideen ikuspuntua babestuz, bere aktibitatean interesa duen beste parte-hartzaile batzuen ikuspuntua ere kontuan hartu behar direlarik.

90.hamarkadan, GE-k garrantzi handia hartu zuen. Aztertzen hasi zen nola enpresak ahal zutela emaitza finantzario hobekoak izan GE eta emaitza finantzarioak tartekatzen bazituzten.

Aipatzekoak dira etapa honetan Carroll 1991.ko lana eta Quazi eta O’Brien-en 2000.ko lana. Carroll-en 1991.ko lanak, bere GE ereduari oinarritu zen eta piramide bat proposatu zuen (**1.irudia**). Bertan esaten du GE-k lau erantzukizunez osatuta dagoela: erantzukizun ekonomikoa, erantzukizun juridikoa, erantzukizun etikoa eta erantzukizun filantropikoa. Honekin Carroll-ek esan nahi zuena zen enpresaren GE-k barneratzen duela mozkinak izatea, legea betetzea, etikoa izatea eta herritar on bat izatea (A. Mozas eta R. Puentes, 2010).

1.irudia: Gizarte Erantzukizunaren piramidea



Iturria: Egokitua Mozas eta Puentes 2010ko lanetik.

Bestalde, Quazi eta O'Brien 2000.ko lanean eredu bidimentsional bat proposatu zuten GE-ren ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko. Proposatzen zuten bi dimentsioak hurrengoak dira: GE-ren eremua (murriztua edo zabaldua) eta ekintza sozialen ondorioz enpresek jasotako ondorioak (kosteak edo mozkinak).

GE-ren kontzeptuaren garapen gehiena 90.hamarkadaren amaieran eta XXI. mendearen hasieran eman zen eta garrantzi estrategiko handia hartu zuen garai honetan. Gainera enpresen misioan, ikuspegian eta enpresaren antolamendu printzipioetan sartzen hasi zen. GE-ren bultzada nagusia azken urteetako eskandalu finantzarioekin lotuta egon zen. Gizarteak kudeaketa etikoago eta arduratsuago bat eskatzen du eta GE-rekin enpresaren fama hobetu daiteke eta konfiantza handiago bat sortu daiteke.

Garai honetan, erakunde gubernamentalak eta ez gubernamentalak eman zuten ekarpen handienak GE-ren terminoari (ONUk, ELGAK, OITk, Europar Batasunak, Global Reporting Initiative, eta abar). Erakunde hauek kontzeptuaren ideiak guztiak batzen saiatu dira definizio zehatz bat lortzeko, baina hori egitea ezinezkoa izan da, ikuspuntu desberdinak daudelako. Honek ekarri daitekeen arazo nagusia enpresek kontzeptua ongi ez bereiztea da.

Erakunde internazionalak, ONU eta ELGAK esaterako, saiatzen dira GE-ri buruzko printzipio edo jarraitu beharreko pausuak enpresak borondatezko modu batean jarraitzeko eta enpresek gizartearekin arduratsuagoak eta garapen jasangarriarekin elkarlanean aritzeko. Nahiz eta definizio zehatz bat ez egon GE definitzeko erakunde guztien arteko akordio bat existitzen da non esaten da GE-k kontuan hartzea borondatezkoa dela (A. Mozas eta R. Puentes, 2010).

2.1 Gizarte Erantzukizunaren ikuspegiak

GE-ri buruzko hainbat ikuspegi edo teoria ezagutzen dira enpresak gizartearekiko arduratsuak izatea bilatzen dutenak. Garriga eta Melé-k autoreek 2004.ko lanean errebisio bat egiten dute non teoria guztiak batzen dituzten enpresa-gizartearen ikuspegitik. Teoria hauek sailkatzen dituzte lau taldetan: teoria instrumentalak, teoria politikoak, teoria integratzaileak eta teoria etikoak (**1.taula**)

1.taula: Gizarte Erantzukizun Sozialaren teoria nagusiak

TIPOLOGIAK	TEORIAK
Teoria instrumentalak	Shareholder-en teoria
Teoria politikoak	Stakeholder-en teoria instrumentala
Teoria integratzaileak	Stakeholder-en arautegien teoria
Teoria etikoak	Herritartasun enpresarialaren teoria

Iturria: Egokitua Mozas eta Puentes 2010ko lanetik.

Tororen ustez (2006),teoria instrumentalak GE-k ikuspegi instrumental batetik ulertzen dituzten autoreek sartzen dira hemen. Hau da, jarrera etiko eta arduratsu baten aldeko enpresek sartzen dira hemen, beti ere, jarrera honek mozkinak ekartzen baditu. Bestela, enpresak alde batera utziko du jarrera hau.

Bigarren taldea osatzen duten teoriak gizarte korporazioen indarrean eta egite arduratsu batean zentratzen dira politikaren arloan. Hirugarren taldea teoria integratzaileek osatzen dute. Enpresa hauek akzionisten gizarte eskaeren asebetetzean zentratzen dira. Laugarren eta azken taldeak enpresek gizartearekiko duten erantzukizun etikoan zentratzen dira (Toro, 2006)

- Shareholder-en teoria edo akziodunentzako baloreen teoria. Teoria honen arabera, enpresek kontuan izan behar duten gauza bakarra posible izatea eta akziodunentzako balioa sortzea da. Teoria honen alde dagoen hainbat autore daude, esaterako, Friedman, 1962.ko eta 1970.ko lanak, Jensen, 2000.ko lana eta Porter eta Kramer, 2002.ko eta 2006.ko lana, beste batzuen artean.
- Stakeholders-en teoria: teoria honek esaten du enpresen ardura ez dela posible gutxitzea epe laburrean, baizik eta ahalik eta balore handiena bilatzea harekin parte hartzen duten guztientzat, hau da, bere interes-taldeentzat, ... Carroll-en 1979.ko lana eta Freeman-en 1984.ko lana teoria honen alde posizionatzen dira.

Teoria honek hainbat ikuspegi ditu, izan ere ikuspegi instrumentala eta arautegiena gehien hedatuta daudenak dira.

Alde batetik, *Stakeholders-en teoriak* abiatuta dago enpresak arrakasta ekonomikoa izateko eta bere etekin korporatibo handiena hobetzeko.

Bestetik, *Stakeholder-en arautegien teoria* etika kontuetara hurbiltzen da non GE-k helburu soziala duena eta ez hain ekonomikoa. Ikuspegi hau ez da helburu ekonomikoa batekin egiten, baizik eta arau etiko edo portaera oneko arautetara moldatzen da. Carroll-ek 1987.ko lanean kudeaketa moral baten moduan definitzen du.

Herritartasun enpresarialaren teoria Melé-ren 2007 lanak aipatzen den bezala, enpresa gizartearen parte da eta bizitza sozialean parte hartu behar du garapen eta ongizatea bultzatzen, aberastasuna alde batera utziz.

Melé-ren ustez, enpresa herritar on bat izan behar da eta herritarrak gizarte on bat bilatzen saiatzen badira eta gizarte arazoak konpontzen saiatzen badira enpresak, hainbesteko baliabide izanda, berdina egin beharko lukete (Melé, 2007).

Teoriak alde batera utzita, Nazio Batuen Garapenerako Munduko Komisia garapen jasangarriari buruzko lehen kontzeptua Brundtland Informearekin argitaratu zen 1987.urtean. Informe honek garapen jasangarria definitzen du gaur egungo belaunaldiei ongizatera heltzen laguntzea, etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jarri gabe.

Denboran hurbilago dugun globalizazioak ekarriko zuen etorkizuna nahiko ona izango zela aurreikusten zen. Suposatzen zen guztiok irabazten aterako ginela, bai herrialde garatuak bai garapenaren bidean zeudenak ere. Globalizazioak mundu mailako aurrekaririk gabeko garapena sortuko zuela, baina aukera guztiak bertan behera gelditu ziren, ondoren aztertzen ditugun arazo batzuk direla medio:

Globalizazioak desoreka handiak ekarri ditu, bai herrialdeen artean eta baita herrialde horien barruan ere. Aberastasuna sortzen da, baina badaude hainbat herrialde eta pertsona ez direla aberasten, haien bizi-maila larriagotu delarik. Gainera, haien ahalmena kontu hauetan jarduteko oso txikia edo nulua da.

Aberasten ez diren pertsona eta herrialde hauek ahal duten moduan bizi dira, eskubide legalik gabe eta aukera gutxiekin egoera honi buelta emateko.

Ondorioz, esan beharra dago, globalizazioaren arauak herrialde industrializatuak etekinak ateratzeko eginak izan zirela, baina hau ez da harritzekoa, beraiek egindako arauak direlako.

Enpresaren boterearen handiagotzea estatuen botere galera haien alde ekarri du. Kasu honetan, enpresa multinazionalak eta kapital handikoak paper oso garrantzitsua jokatzen dute. Hauek garapen orekatu eta jasangarrian laguntzeko, pobrezia erazteko eta bizitza duin baten eskubiderako, politika publikoak edo arauak bultzatzeko, ekiditeko eta eragiteko ahalmena dute.

Gaur egun, %52 enpresa inguru multinazionalak dira munduko ekonomian. Enpresa multinazionalak, eta komertzialak orokorrean, ez dute hainbesteko botererik Estatuek izan ahal dutenarekin konparatuz lege hauek moldatzeko edo aldatzeko.

Kanpoko zuzeneko inbertsioarekin sektore pribatuak garrantzi handia hartzen du garapen ekonomikoaz hitz egiten dugunean. Garapen bidean dauden herrialdeek

atzerriko inbertsio zuzena erakartzea bilatzen dute, nahiz eta honek ondorio txarrak ekarri herrialdearen garapen jasangarrirako.

Oinarrizko zerbitzuen pribatizazioan sektore pribatuak esku-hartze handia izan zuen zerbitzuen prestazioan, adibidez, uraren zerbitzuan, energiaren zerbitzuan edo hezkuntza zerbitzuan. Zerbitzu hauek normalean sektore publikoak ematen dituzte eta eragin handiak dituzte pertsonen bizitzan. (Observatorio de RSC, 2014)

Gaur egungo krisia eta sozietatearen desorientazioa dela eta, GE-ren kontzeptuak garrantzi handia hartu du egoera honek ekarri dituen zirkunstantziak ondo ulertzeko eta nola jardun behar duten enpresek egoera hau konpontzeko.

GE-k ulertzen laguntzen du pertsonak eta erakundeak erlacionatutako inguruetan nola jarduten dugun; nola erabakiak hartzerakoan ondorioak izango dituztela gizartean eta nola ondorio horiek ez dutela eragiten soilik gai konkretu batean, baizik eta gai ekonomikoetan, gizarte gaietan eta ingurugiroko gaietan ere izango dituztela ondorioak.

Erakunde batzuen arabera, bakoitzak modu batean edo bestean izango du kudeatuta GE haien aktibitatearen eta izaeraren arabera. Oso garrantzitsua da erakundearen erantzukizuna finkatzea eta hau kudeatzea eguneroko erabakiekin. Horregatik, erantzule izatea ez da aukera bat. Bakoitzak erantzule izan behar du bere erabakiekin, jokaerekin eta sortutako eraginekin, eta erakundeek aukeratu dezakete erantzukizuna kudeatzea ala ez kudeatzea. (Cordero, C. y de la Cruz, C. 2012)

Eta guzti honekin esan dezakegu zergatik den garrantzitsua Gizarte Erantzukizuna:

Enpresen eta multinazionalen eragin negatiboak gutxitzeko eskubide sozialetan, laboraletan, ambientaletan eta, bereziki, Giza Eskubideetan erabiltzen den erreminta negozioak beste modu batean kudeatzeko filosofia edo pentsakera baten modukoa da Gizarte Erantzukizuna. (Observatorio de RSC, 2014)

Kofi Annan-ek aurkeztu zuen 1999an, egun mundu mailan garrantzia handia duen ekimena Nazio Batuen Munduko Ituna United Nations-Global Compact sortu zen enpresei GE-ri buruzko oinarrizko kontzeptuak bereganatzen eta eguneroko aktibitateetan kontutan hartzen saiatzeko.

Rio de Janeiroko Lurraren Gailurra 1992 eta Rio +5 Nueva York-eko Gailurraren ondorioz, Johannesburgko 2002ko Gailurrak parte hartze handia izan zuen gizarte zibilaren aldetik, enpresek gizartean zuten eragina gai garrantzitsu bat zela aldarrikatuz eta hau formalizatzeko GE-ri buruzko politikak bilatzeko eztabaida piztu zen.

2000.urtean, Global Reporting Initiative-ren (GRI) lehenengo argitalpen definitiboa egin zen enpresei errazten zeintzuk ziren jasangarritasun memoriak egiteko oinarrizko pausuak.

Urte honetan, Lisboaren Gailurrak finkatzen duen helburua Europako ekonomia lehiakorragoa bihurtzea da kapaza dena hazkunde ekonomiko iraunkor bat lortzea kohesio sozial handiago batekin.(Europar Komisia, 2001)

Helburu hori lortzeko asmoz, 2001.urtean interesatuta zeuden parte guztien arteko elkarrizketa bat adostu zen eta 2001.urteko uztailean Europar Komisiaok Liburu Berdea argitaratu zen, GE-ri buruzko Europako gobernu politikak finkatzen zuena (Europar Komisia, 2001).

Liburu honek Europa mailan GE-ren kalitatea eta koherentzia bilatzeko balio izan du eta Europar Batasunaren enpresei Gizarte Erantzukizuna nola sustatzea europear edo internazional mailan eztabaidaren hasiera eman zuen. Enpresen praktika zuzenak sustatzen ditu; politika nazionalak eta internazionalak nola mantentzea era koherente batean zaintzen saiatzen da; enpresen eta mintzaideen arteko parte-hartzea sustatzen saiatzen da; ebaluazio metodoak bultzatzen ditu; enpresak animatzen ditu garapen iraunkorraren testuinguruan eta era proaktibo batean tresna egokiak erabiltzera; multistakeholders-en foroak sortzea; eta gobernuko kudeaketan GE-ri buruzko praktikak gaineratzea. (Europar Komisia, 2001).

Bestalde, Europar Komisiaok argitaratu duen GE-ri buruzko definizioak hartzen baditugu, konturatzen gara Liburu Berdeak ematen duen definizioa eta 2011ko definizioa alde oso nabarmena dutela.

Alde batetik Europar komisiaok Liburu Berdean honela definitu zuen GE: enpresek har dezaketen jarrera boluntarioa haien eragiketa komertzialetan eta haien partaideekin hartzen duten jarrerak, arlo sozialetan eta ingurugiroarekin arduraren hartzen dutenak. Izan duten esperientzia ingurugiroari errespetua duten inbertsioak, inbertsio

teknologikoak eta praktika komertzialetan, enpresen norgehiagoka handitzen lagundu dezake.

Bestalde, Liburu Berdea argitaratu zen arte, GE enpresa handietan edo enpresa multinazionalen soilik aplikatzen zen eta azaltzen du nola ETE-etan eta mikroenpresetan ere oso garrantzitsua edo ezinbestekoa dela GE aplikatzea, hauek direlako ekonomiarekin bultzatzen dituztenak eta lan postu gehienak sortzen dituztenak.

Liburu Berdeak aipatzen ditu nola GE-k efektu zuzenak edo zeharkakoak izan ditzakeela ekonomian. Efektu zuzenak eman daitezke, adibidez, lan ingurune hobeko batean, hau da, langileen konpromisu handiago batean edo haien produktioa handiagotzean, edo baliabide naturalen erabilpen eraginkorrean. Bestetik, zeharkako efektuak lortzen dira ere eta hauen bitartez kontsumitzaileek eta inbertitzaileek jartzen dute arreta enpresan, honi onurak ekarri diezaiokelarik merkatuko aukerak handituz.

Enpresa batek sozialki erantzule izateak, adibidez, sozietate bateko balore etikoak kontutan hartzen baditu, etekin finantzarioak sortu eta bere kotizazioa erraztu dezake.

Beste alde batetik, 2011ko definizioari erreparatzen badiogu eta Liburu Berdearen definizioarekin konparatzen badugu, 2011an Europar komisioak Gizarte Erantzukizunaren definizioa aldatzen du pixka bat.

2011.urtean honela definitzen du Gizarte Erantzukizuna, boluntario hitza ez du inondik aipatzen eta animatzen ditu enpresak jokaera hau hartzera: enpresek hartzen duten jarrera da haien eragiketa komertzialetan eta haien partaideekin hartzen duten jarrerak arlo sozialetan eta ingurugiroarekin ardura hartzen dutenak.

Europar komisioak animatzen ditu enpresak jokaera hau planteatzera epe luzerako eta ongizate soziala eta kalitatezko eta produktiboagoak diren lanpostuak sortzeko, hala nola, produktu, zerbitzu eta enpresa eredu berritzaileak aztertzerako. (Europar Komisioa, 2001).

Bestalde, 2014.urteko urriaren 22an Europar Batasunak 2014/95/UE Direktiba berria argitaratu zuen informazio ez finantzario eta enpresa handi zehatz eta talde zehatz batzuei buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa.(Europar Komisioa, 2014)

Direktiba honek behartzen du urteko gestio txostena egin behar duten eta 500 langile baino gehiago dutenei, haien balantzea 20 milioi baino gehiago gainditzen dituenak edo 40 milioi euro baino gehiago fakturatzen badute. Enpresa motak: kotizatzen dituztenak, finantzario eta aseguru-zko konpainiak eta inbertsio kolektiboko entitateak batik bat.

Enpresek gai hauei buruz informatu behar dute:

- Ingurumenaren inpaktuari buruz, hau da, osasun eta seguritateari buruz, berotegi-efektuak igortzen dituen gasen buruz, energi berriztagarrien erabilpena, ura eta kutsadura atmosferikoari buruz.
- Gizarte eta langileei buruz: aukeren berdintasunari buruz, OIT hitzarmenen ezarpenari buruz, lan-baldintzei buruz, eskubide sindikalei buruz, osasun eta seguritateari buruz eta jarduten duten inguruen seguritatea eta garapenari buruzko elkarrizketak izatea.
- Giza eskubideak, abusuak aurreikusteko neurriak hartzea.

Horretarako, enpresek hurrengo gaiak sartu beharko ditu:

- Bere negozio ereduari buruzko laburpen txiki bat.
- Negozioan aplikatzen diren politikak azaltzea eta nola kontrolatzen diren.
- Lortutako emaitzak.
- Enpresak izan ditzakeen arazoak, hirugarrenekin, enpresaren produktu edo zerbitzuak izan dezaketen inpaktuak edozein gai horietan eta nola enpresak kudeatzen ditu arazo horiek.
- Sektoreko adierazle ez finantzarioak.

Dibertsitateari buruz, enpresek politika, helburu eta emaitzen informazioa eman beharko dute dibertsitate arloan aplikatzen duten gobernu-ko organo, zuzendaritza eta gainbegiraketa egin beharko dute adin, sexu, jatorri geografiko, formakuntza eta esperientzia profesionalari buruz.

Bestalde, gestio txostena egitean edozein inpaktu ekonomikoari buruzko informazioa eman behar dute eta azalduta egon behar dira txostenean.

Konpainia batek ez badu gai hauei buruz erreferentziarik egiten, azaldu beharko du zergatia. Ez dira behartutak egongo kontraesanean edo gai horri buruz informazioa emateak aurkako eraginak baditu konpainiarentzat.

Indarrean sartzen den momentutik aurrera, auditoreak egiaztatu beharko du informazioa barneratuta dagoela txostenean.

Txosten hau urtero egin beharko da ekitaldia itxi eta 6 hilabeteko epea egongo da txostena aurkezteko, bai gestio txostenaren barruan edo txosten garatuagoetan barneratzen dituztenak, adibidez, gizarte erantzukizuna.

Direktiba hau 2016.urtean martxan jarri da eta honi buruzko lehenengo txostenak 2017ko ekitaldian aurkeztuko lirateke.(Blasco, 2014)

Eta orain, hainbat galdera planteatu ditzakegu: gizarte erantzukizuna borondatezko jarrera bat edo derrigorrezko jarrera bat izan behar da? Nortzuk aplikatu behar dute jarrera hau? Hau izan daiteke zalantza handiena.

Honekin guztiarekin esan dezakegu, oso garrantzitsua dela enpresek GE kontuan izatea, lanaren zati honetan ikus daitekeelako enpresak izan behar duten helburua ez dela soilik etekinak izatea, baizik eta gizartearekin eta etikoki erantzulea izatea. Horregatik, bai enpresa handietan eta ETE-etan oso interesgarria izango litzateke GE kontuan hartzea eta poliki-poliki helburu bakar hori dituzten enpresak GE kontutan hartzera animatzea.

2.2 Gizarte Erantzukizunaren eremuak Espainia mailan

GE zeharkako kontzeptu bat da eta enpresen kudeaketa eremu desberdinetan eragina du. Horregatik, GE korporatibo markoak garatzen dituen ekintzak egon behar dira:

- Enpresaren oinarrizko aktibitatearekin lotuta.
- Iraupenaren bokazioa izatea
- Konpromesu handia lortzea goi zuzendaritzarekin

Giza Eskubideak: *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak* esaten du enpresak Giza Eskubideak behatzeko, errespetatzeko eta sustatzeko obligazioa dutela.

Enpresek, gizarte organoak bezala, obligazioa dute Giza Eskubideen inguruko lege internazionala betetzea eta eskubide hauen errespetua sustatzea. Guzti hau suposatzen du, konpainia guztiek ahal dutena egin behar dutela honengatik:

- Jarduten duten herrialdeetan Giza Eskubideak sustatzea.
- Herrialde batean jarduten hasi baino lehen aztertu Giza Eskubideak zein eraginak izan ahal dituzten.
- Enpresak Nazio Batuen arautegiak betetzen dituela behar den moduan eta erabakiak behar diren moduan hartzen dituela ziurtatzea.
- Giza Eskubideei buruzko arautegia barneratzea. Giza Eskubideen arautegi horietan langileak defenditu behar dituzte, lan egiten duten inguruko partaideen babesa bilatu behar dute, kontrol mekanismoak barneratu behar dituzte.

Lan Eskubideak: Lanaren Erakunde Internazionalak (OIT), lanaren baldintzei buruzko 200 txosten inguru argitaratu ditu. 200 lan horietatik, zortzi lan langileei lan eskubideei erreferentzia egiten die: askatasuna, lan gogorraren debekua, haurren lanaren debekua eta diskriminaziorik ez.

Politika Sozial eta enpresa multinazionalen printzipioen deklarazio Tripartiten eta enpresa multinazionalentzako ELGA-ko zuzentzailetan barneratzen dira lan politikak orokorrean, pertsonalaren formakuntzaz, langileen kexak nola kudeatu eta negoziazio kolektiboa, beste batzuen artean.

Ingurugiroa: Nazio Batuek garapen jasagarria Helburu Unibertsal baten moduan ulertzen dute.

Tratatu eta txosten garrantzitsu asko existitzen dira, ELGAN, enpresen erantzukizuna espezifikatzen dutenak haien eraginak airearen kalitatean, uraren kalitatean, kliman eta biodibertsitatean.

Kontsumitzailearen babesa: Nazio Batuen Kontsumitzailearen babesa kudeatzen duen saila, kontsumitzaileen interesak babesten duten zortzi printzipioetan oinarritzen da: kontsumitzailearen oinarritzko zerbitzuetarako eskubidea, osasunerako eskubidea, informatua izateko eskubidea, aukeratzeko eskubidea, erreklamatzeko eta entzunda

izateko eskubidea, kontsumitzaile gisa hezituta izateko eskubidea eta jasangarritasunaren eskubidea.

Kontsumitzailearen eskubidea produkzio eta kontsumo jasangarri bat izateko azalduta dago Rio-ko Deklarazioan, Brundtlan Informean eta Europar Batasunean.

Osasuna: Osasunaren Eskubide Unibertsala Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Paktu Internazionallean azalduta daude.

Guzti honek barneratzen du, alde batetik, enpresek obligazioa dutela osasunarekin erlazioa duten zerbitzuen desberdintzeari, bereziki gizarteko talde zaugarriekin. Eta bestetik, behartuta daude elikadura, babeslekua, ur edangarria eta osasunaren oinarriko printzipioak ziurtatzera. Betebeharra dute ere, heziketa ematera, osasunaren inguruko informazio eta gaixotasunak saihesteko informazioa ematera.

Enpresek ziurtatu behar dute ingurune osasuntsu bat istripuen eta gaixotasunen prebentzioak barneratzen duena.

Korruptzioaren kontrako borroka: Enpresen erantzukizuna Korruptzioarekiko ELGA-ko Korruptzioaren kontrako borrokaren hitzarmenean dago hartuta eta finkatzen du enpresek funtzionario publikoak erosten badituzte delitu bat izango litzateke.

Bestalde, enpresek neurriak hartuko dituzte, beti ere, haien lege eta arauak jarraituz kontabilitate, finantza egoeren argitalpenak eta auditoria arauetan liburuz kanpoko kontuak debekatzera, transakzio extrakontableak debekatzera, existitzen ez diren gastuak debekatzera eta faltsuak diren dokumentuak debekatzera.

Gizarte Erantzukizunaren beste eremu batzuk: guzti honekin esan dezakegu GE zeharkako kontzeptua dela eta enpresaren kudeaketa eremu desberdinetan eragiten duela.

Oraindik existitzen dira hainbat kontzeptu GE erlazioa dutenak. Nahiz eta oraindik eztabaida prozesu batean egon, etorkizunean garrantzi handia izango dute, hala nola, norgehiagokari buruzko legeak, zergen ordainketak, teknologiaren transferentzia eta jarduten duten herrialdeen subiranotasunaren errespetua. (Observatorio de RSC, 2014).

3. GIZARTE ERANTZUKIZUNA ENPRESAN

Enpresaren kudeaketan eta egunerokotasunean barneratzeko hainbat ekimen proposatzen dira 2000.urtearen lehen hamarkadaren hasieran GE-ren kontzeptua bultzatzeko. Horregatik, lanaren atal honetan zazpi ekimen azalduko ditut eta horietatik GRI lanaren hurrengo atalean sakonago aztertuko dut.

3.1 Munduko Ituna

Nazio Batuen Munduko Ituna(United Nations-Global Compact) onartutako hamar printzipio unibertsalak enpresen GE bultzatzeko ekimen internazionala da eta Giza Eskubideak, Ingurugiroa, Lan estandarretan eta Korrupzioaren kontrako borrokarako gaietan lan egiten du. Munduko ekimen boluntario handiena da enpresen GE bultzatzeko (www.pactomundial.org; 2016.ko urtarrila).

Nazio Batuen Munduko Itunak 2000.urteko uztailan hasi zen, plataforma politikoa eta jasangarritasunarekin eta praktika enpresarial arduratsuak hartzera konpromisoa hartu duten enpresentzat zuzenduta dago (Munduko Ituna, 2009).

Enpresen CEOengatik (Chief Executive Officer, zuzendariak) babestutako ekimena da, marko praktikoa, jasangarritasun enpresariala garatzeko, ezartzeko eta politikak garatzeko. Sinatzaileei baliabide gama handi eta kudeaketarako erreminta ugari eskaintzen zaizkie negozio eredu eta garapen jasangarria ezartzen laguntzeko.

GE-ren ekimen honek bi helburu lortzen saiatzen da:

- Hamar printzipio unibertsalak aktibitate enpresarial guztietan txertatzen saiatu.
- Nazio Batuen helburu zabalduenak bideratzen laguntzea, Milurteko Garapenaren helburuak (ODM: Objetivos de Desarrollo del Milenio).

Nazio Batuen Munduko Itunak Nazio Batuen abantaila hoberenak konbinatzen saiatzen da. Ekimen mundiala da, lokala, pribatua eta publikoa, boluntarioa eta kontuak emateko ardura du. Munduko Itunean parte hartzeak abantaila praktikoa eskaintzen ditu (**2.taula**):

2.taula: Munduko Itunean parte-hartzearen abantailak

ABANTAILAK
1. Politika esparruaren markoa ezartzea politiken garapena, ezarpena eta politiken zabalkuntza aurrera eramateko ingurugiroko praktketan, gai sozialetan eta gobernantza gaietan.
2. Praktika hoberenak eta praktika emergenteak partekatzea emaitza praktikoak eta estrategiak bilatzeko eta erronka komunak gerturatzeko.
3. Jasangarritasunari konponbideak bilatzea aliantzak egiten interesatuta dauden taldeekin, adibidez, Nazio Batuen erakundeekin, gobernuekin, gizarte zibilarekin, lan munduarekin, eta beste interes talde batzuekin jarduera enpresarialaren kanpo daudenak.
4. Balore katearen bitartez Nazio Batuen Munduko Itunaren mundu osoko menpekotasun instituzionalak eta entitate subsidiarioak elkartzea.
5. Garapenarekin eta jasangarritasunarekin erlazioa duten gaietan Nazio Batuak duen ezagutza eskuragarri izatea.
6. Nazio Batuen Munduko Itunaren kudeaketa erremintak eta baliabideak aprobetxatzea.

Iturria: Elaborazio propioa.

Nazio Batuen Munduko Itunak lidergoaren ekimen bat da, erakundearen zuzendariak konpromiso hau sinatu behar du. Ekimen honi gehitzen den edozein erakunde hurrengoa kontuan hartu behar du: Munduko Itunaren printzipioak erakundearen estrategietan kontuan hartu behar dute; erabakiak hartzerakoan kontuan hartu behar dituzte ekimenaren printzipioak erakundearen goi mailako organoetan; aliantzak egitea garapenaren helburu zabalagoak lortzeko; urteko txostenean edo antzekoa den txosten batean nola aplikatzen dituen printzipioak azaldu behar dituzte; Munduko Itunaren printzipioak sustatzea beste erakundeen artean.

Munduko Itunera gehitu nahi diren erakundeek hurrengoa egin beharko dute:

- Nazio Batuen idazkari nagusiari zuzendutako gutun bat idatzi behar dute eta haien konpromisoa aipatu behar dute Munduko Itunarekin eta haien printzipioekin.
- Bestetik, formulario elektronikoa bete behar dute Munduko Itunaren web orrian eta lehen aipatutako gutunaren kopia bat erantsi.

Gainera, urtero ekarpen monetario bat egingo dute ekimenari laguntzeko. Ekarpentak enpresaren araberakoak izango dira eta nazioarte mailan ezarritako zenbatekoak ondorengoak dira:

- Enpresaren salmentak 1.000 milioi dolar baino gehiago badira, 10.000 dolarreko ekarpena egingo dute.
- Enpresaren salmentak 250 eta 1.000 milioi dolar artekoak badira, 5.000 dolarreko ekarpena egingo dute.
- Enpresaren salmentak 250 dolar baino gutxiagokoak badira, 500 dolarreko ekarpena egingo dute.

Munduko Itunak hamar printzipioak sustatzeko eta oinarritzeko diren kasuetan lidergoa erakusteko ahalmena emango die parte hartzaileei akziorako eta berrikuntzarako plataformak eskainiz. Honela, ondorengoak eskaintzen ditu ekimenak:

Munduko Itunaren sare lokalak: sare hauek enpresek egiten dituzten ahalegin handietan oinarritzen dira Munduko Ituna ezartzeko eta aldi berean, parte hartzeko aukerak sortze saiatzen dira.

Elkarrizketak eta ikaskuntza: elkarrizketak eta ikaskuntzak beharrezkoak dira errendimenduan hobekuntzak emateko.

Lan-bide espezializatuak: gizarte erantzukizunaren mugimenduak asko aurreratu egin da eta horrekin batera beharrak ere argitaratu dira eta arreta handiagoa behar duten gaiak dira. Erantzuna eman die hainbat gaietan zentratzen, adibidez, klima-aldaketari buruzko gaiak, ura, hezkuntza kudeaketan edo inbertsio arduratsuak.

Erakundeen proiektuak: Munduko Itunak aliantzak egitera animatzen ditu parte hartzaileak Nazio Batuen helburuak sustatzeko edo bultzatzeko (Munduko Ituna, 2009).

Munduko Itunaren misioa, hamar printzipio unibertsalen bidez jasangarritasun enpresariala garatzea, Giza Eskubide gaitan, Lan arauetan, Ingurugiroan eta Korrupzioaren kontrako borrokan eta eguneroko estrategia eta eragiketetan laguntzea entitate guztietan. Bestalde, bisioaren aldetik, munduko ekimen boluntario handiena da gizarte erantzukizuna eta garapen jasangarriari buruzkoa, kideen arteko balio partekatua garatzeko. Baloreen aldetik, lehen esan dudan moduan, hamar printzipio unibertsalak ezartzea da ekimen honi batutako kide guztien artean. Paktu Mundialaren hamar printzipio unibertsalak lau eremu handietan zentratzen dira:

Giza Eskubideak:

1. “Enpresek, haien eragin eremuaren barnean, oinarrizko giza eskubideak errespetatu behar ditu internazionalki onartuak.”
2. “Enpresak ziurtatu behar dute bere enpresak giza eskubideak errespetatu dituztela.”

Lan baldintzak:

3. “Enpresek kide izateko askatasuna eta negoziazio eskubidearen ikuskapen eraginkorra babestu behar dute.”
4. “Enpresek indarkeriarekin egindako lanen eliminazioa babestu behar dute.”
5. “Enpresa guztiek haurren lanaren erradikazioa babestu behar dute.”
6. “Enpresek enpleguan eta okupazioan diskriminazio praktiken ezeztatzea babestu behar dute.”

Ingurumena:

7. “Enpresa guztiek ikuspegi prebentiboa izan behar du ingurugiroarentzako mesedegarria dena.”
8. “Enpresak erantzukizun ambiental handiago bat bultzatzen dituzten ekimenak sustatu behar dituzte.”

9. “ Enpresak ingurugiroarekin errespetua duten teknologien garapena bultzatu behar dituzte.”

Korruptzioaren kontrakoa:

10. “Enpresa guztiek korruptzioaren kontra lan egin behar dute, estortsio eta eroskeria barne.”

3.2 ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat

Enpresa multinazionalentzat zuzendutako ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzako gomendioak dira. Printzipio eta arau ezberdinak barneratzen dituzte enpresaren jokabide arduratsuei buruz testuinguru global batean (ELGA, 2011). 1976.urtean egin ziren lehen aldiz, baina azken berrikuzpena, oso garrantzitsua izan zena, 2011.urtean egin zen (Diario Responsable, 2013).

Lerro zuzentzaile hauek aurrerapen ekonomiko, ingurumen eta mundu osoko enpresetan ekarpen positiboa sustatzeko helburua dute.

Lerro zuzentzaileak ezartzeko mekanismo batengatik babestuta daude: Kontaktuen Puntu Nazionalak (PNC: Puntos Nacionales de Contacto). Mekanismo hauek lerro zuzentzaileak ezartzera laguntzen dute. PNCak enpresek eta interes taldeek laguntzen dituzte lerro zuzentzaileen ezarpena bultzatzeko. Bestetik, plataforma bat osatzen dute gertatzen diren arazoak konpontzen saiatzeko (ELGA, 2011).

Lerro zuzentzaileak gobernuak zuzendutako gomendioak dira enpresa multinazionalentzat. Printzipioak eta arauak bat egiten dute legearekin. Lerro zuzentzaileak betetzea guztiz boluntarioa da, baina izan liteke lerro zuzentzaileak tratatzen dituzten zenbait gai lege nazionalekin edo konpromiso internazionalekin lotura izatea.

Enpresen lehenengo betebeharra legeak betetzea da. Lerro zuzentzaileak ez dituzte abian dauden legeak ordezkaten eta ez da haien helburua enpresak legearen kontra joatea edo egitea. Baina edozein herrialde batean legea eta lerro zuzentzailearen printzipioak bat egiten ez dutenean, enpresek printzipio horiek errespetatzeko zer edo zer egin behar dute, beti ere legea errespetatuz.

Lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalaren edozein entitatera zuzenduta daude (sozietate matrizeak edo entitate lokalak), eta horrela haien arteko laguntza eman daiteke lerro zuzentzaileen printzipioak ezartzerako orduan (ELGA, 2011).

Printzipio nagusiak: txostenaren kapitulu honetan enpresentzat oinarritzkoak diren printzipio eta orientabideak ematen dira lerro zuzentzaileak ezartzeko.

Zati honetan gai batzuk lantzen dira, hala nola, aurrerapen ekonomiko, sozial eta ingurumenari laguntza eman behar zaie garapen jasangarria lortzeko, internazionalki aitortutako giza eskubideak errespetatzea, tokiko gaitasunen estimulazioa, enpresaren gobernu ona, diskriminazioa, eragin negatiboak gutxitzea, parte-hartzaileen jarrera ona sustatzea, interes taldeen partizipazioarekin konprometitzea ... e.a. (Diario Responsable, 2013).

Informazioaren zabalkuntza, lerro zuzentzaileek enpresen aktibitateen ulermena erraztea dute helburu eta interes taldeekin erlazioa izatea, horretarako beharrezkoa da gardentasunarekin jokatzeko eta haiekin komunikazio on bat ezartzea, komunikazio bide egokiak erabiltzen, hau da, teknologien bidez edo beharrezkoa bada modu zuzenago batean.

Horrela enpresek haien emaitza finantzarioei eta ustiapeneko emaitzei buruz informatu behar dute, modu berean egin behar dute haien helburuekin, adierazgarriak diren partaidetzekin, boto eskubideei buruz, enpresaren politikei buruz ... e.a.

Gainera, lerro zuzentzaileek gonbidatzen dituzte enpresak ingurumen gaiei eta giza gaiei buruz informazioa ematera.

Giza Eskubideei erreparatuz, lerro zuzentzaileek bat datozte enpresen markoarekin eta Nazio Batuen giza eskubideekin: “ babestu, errespetatu eta konpondu”.

Bi markoekin bat eginez (lerro zuzentzaileak eta Nazio Batuak), aipatzen dute estatuek giza eskubideak errespetatu behar dutela bere inguruan eta enpresek giza eskubideak errespetatu behar dutela nahiz eta estatuek duten nahia hauek errespetatzeko edozein izanda.

Enplegua eta lan harremanetan, lerro zuzentzaileek Lanaren Erakunde Internazionalak (OTI) finkatzen dituen oinarritzko eskubideetan oinarritzen da.

Enpresek ezin izango dute eremu bakoitzean aplikatzen diren marko legalak hautsi eta hainbat alderdi errespetatu beharko dituzte, hala nola, elkartze eskubidea, negoziazioa eta antzezpena, haurren lana eta lan bortxatuak, diskriminaziorik ez, langileen soldatak nahikoak izan behar dira haien beharrak eta haien familien beharrak asetzeko, lanean osasuna eta segurtasuna ziurtatu behar da ...

Ingurumenari dagokionez, lerro zuzentzaileen kapitulu honetan kontuan hartzen da ingurumenaren babesa, bereziki Rio-ko Aitorpena ingurumenari buruz, Agenda 21 eta beste hitzarmen batzuk ingurumenarekin zerikusia dutenak. Horrela, lerro zuzentzaileek hau eskatzen dute:

- Ingurumen Kudeaketa sistema bat ezartzea.
- Aktibitateak eragin ditzakeen efektuak ingurumenean, osasunean eta seguritatean.
- Kontuan hartzea aurreikusten diren inpaktuak ingurumenean, osasunean eta seguritatean erabakiak hartzeko orduan.
- Larrialdi planak egitea.
- Ahal den neurrian hobekuntzak egitea teknologian, beti ere inpaktu negatiboak kontrolatzen, produktu eta zerbitzuen inpaktu negatiboak gutxitzea, bezeroen sentsibilizazioa ...

Korruptzioaren kontrako borroka, eroskeriaren eskaintzak eta beste mota bateko estortsioa ekiditeko helburuarekin lerro zuzentzaileak erakundeei eskatzen dizkie edozein motatako debekatutako ordainketak edo kobruak ez egitera edo legez kanpoko abantailak ematen duen edozein motatako kontratua sinatzera. Erakundeak animatzen ditu barne kontrolak egitera aipatutakoa ziurtatzeko. Korruptzioaren kontrako neurri hauek kargu publikoetan eta partidu publikoetan lan egiten dutenentzat aplikagarriak dira.

Kontsumitzaileen interesei dagokionez, kontsumitzaileen seguritate arauak azaltzen dira, hau da, kontsumitzailearen heziketa erabakiak hartzeko orduan kausarekin egitea eta inpaktu ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ulertzen, datu pertsonalen babesa, engainagarriak diren praktika komertzialen kontrako borroka ...

Era berean, garrantzi handia ematen die arreta handiagoa behar duten kontsumitzaileen beharrak eta komertzio elektronikoen arazoak enpresak animatuz hauek kontuan hartzera.

Zientzia eta teknologiari buruz, lerro zuzentzaileak enpresak I+G aktibitateen emaitzak zabaltzera bultzatzen dituzte.

Konpetentziari dagokionez, gogoratzen diete enpresei haien aktibitatea aurrera eramane behar dutela legea betetzen, hau da, enpresen arteko akordioak, prezioak, beherapenak edo merkatuak banatzeko jarrerak adostuz debekatuta daudela.

Fiskalitatearen gaiari buruz, garapen jasangarria lortzeko, lerro zuzentzaileek adierazten dute oso garrantzitsua dela enpresek finantza publikoekin elkar lan egitea eta abian dagoen arau fiskala errespetatzea. (Diario Responsable, 2013).

3.3 AA1000

Accountability 1000 araua Accountability institute of social and ethical accountability egindako araua da, 1999.urtean eta hainbat nazioarteko kontsulta prozesu pasatu ondoren 2003.urtean argitaratu zuten.

AA1000 erakundeen erantzukizuna eta jokaera orokorra hobetzeko diseinatuta izan zen, kontabilitate etiko eta sozialaren kalitatea, auditorien eta txostenen kalitatea handitzeko helburuarekin.

AA1000 kontabilitate etiko eta sozialaren kalitatea ziurtatzen, auditorien eta txostenen kalitatea ziurtatzen saiatzen da (Accountability Institute, 1999).

Accountability institutuak AA1000 araua hiru serieetan banatzen du:

- 1. Accountability AA1000APS (2008) printzipioen araua:** AA1000APS arauaren helburua da erakundeei internazionalki aitortutako printzipio multzo bat eskaintzea, haien erantzukizuna nola ulertzen duten, gobernatzen duten, ezartzen duten, ebaluatzen duten eta komunikatzen duten egituratzeko. Normalean, AA1000APS printzipioak jasangarritasunarekiko helburu arduratsu eta estrategikoa duten erakundeetara zuzentzen da. Erakundeei lagunduko dute jasangarritasun arloa hobetzen, kudeatzen eta ulertzen. Gainera, AA1000 araua erabiltzen dutenek printzipio hauek erabiliko dituzte ere.

AA1000 arauan hiru printzipio finkatzen dira eta horietako bat oinarrizkoa da:

- Oinarrizko sartze printzipioa
- Garrantziaren printzipioa
- Erantzun ahalmenaren printzipioa

Lehenengoa, oinarrizko sartze printzipioa, beharrezkoa da garrantzi printzipioa eta erantzun ahalmenaren printzipioa lortzeko.

Oinarrizko sartze printzipioaren arabera, erakundea inklusiboa izan behar du. Honek esan nahi du, erakundearen interes taldeak parte hartu behar dutela erantzun estrategikoak eta arduratsuak emanez garapen jasangarri oso bat lortzeko.

Interes taldeei hitz egiten dugunean, erakundeak bere aktibitateekin, produktuekin edo zerbitzuekin ondorioak jasan ahal dituztenak dira.

Inklusibitate printzipio honek inplikazio eta partizipazio prozesu definitu bat eskatzen du, erlazio osoa eta orekatua eskaintzen duena eta emaitzak lortzeko, hala nola, estrategiak, planak, akzioak eta inpaktuei aurre egiteko ondorioak, beti ere, erantzukizun perspektiba batetik.

Garrantziaren printzipioari jarraiki, erakundeak bere gai garrantzitsuenak identifikatu beharko du. Printzipio hau kontuan hartu behar du gai bat eta baloratu behar du garrantzitsua den edo ez jakiteko. Gai bat garrantzitsua izango da badu erakunde edo interes taldeek erabakiak hartzerako orduan.

Informazioaren analisiak kontuan hartu behar ditu jasangarritasunak bultzatzen dituen faktoreak eta erakundearen eta bere interes taldeen kezkek, beharrak eta aukerak. Erakundea azkena izango da gai bat garrantzitsua den ala ez erabakitzen. Prozesu hau orekatuta egongo da erabakiak hartzeko prozesuekin eta estrategia garatzeko prozesuekin.

Gaien garrantzia denborarekin aldatuz joago daiteke, interes taldeen kezkek, beharrak eta aukerak aldatu daitezkeelako.

Erantzun ahalmenaren printzipioak interes taldeen lanetan eragiten duten gaietan erakundeak nola erantzun beharko duten gidatzen du. Erantzun ahalmenaren printzipioa da erakunde batek ematen dioten erantzunak haien interes taldeei jasangarritasun gaietan eragin zuzena dutenean.

Erakundeak erantzun trinkoak eman behar die bere interes taldeei hauek erabakiak hartzeko orduan informazio nahikoa izan dezaten. Erakundek funtzionamenduan jarri beharko ditu behar diren prozesu guztiak konprometitu den erantzunak emateko (Accountability Principles Standard, 2008).

2. Accountability AA1000 AS (2008) jasangarritasuna segurtatzeko araua: AA1000AS arauaren helburua da jasangarritasunari buruzko txostenen sinesgarritasuna eta kalitatea ziurtatzea.

AA1000 AS araua internazionalki aitortutako araua da eta jasangarritasuna ziurtatzeko beharrezko baldintzak eskaintzen ditu.

Jasangarritasuna ziurtatzeko honelako ondorioak eskaintzen ditu:

- Natura eta Accountability AA1000 printzipioak betetzea aplikagarria denean.
- Jasangarritasunari buruzko informazioaren kalitatea.

Arau honek hornitzaileei eta jasangarritasuna ziurtatzen duten profesionalei zuzenduta dago. Arau hau erabilgarria izan daiteke jasangarritasunari buruzko txostenak egiten dituzten erakundeentzat (AA1000 Assurance Standard, 2008).

3. Accountability AA1000 SES (2011) interes taldeen konpromisoaren araua: erakundeak interes taldeen konpromisoa prozesua erabiliko du interes taldeekin inplikatzeko eta adostutako erabakiak aurrera eramateko. Prozesu hau ere Accountability-ko oinarritzko mekanismoa da erakundea behartzen duena bere interes taldeak inplikatzeko jasangarritasunari buruzko kezka identifikatzera, ulertzera eta aurre egitera. Erakundea behartuta egongo da hartutako erabakiak interes taldeei jakinaraztea (Managing a Sustainable Business, 2011).

3.4 SA8000

SA8000 arauaren helburua auditatu daitekeen araua eskaintzea da, aplikatzeko boluntarioa dena, Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazioan, OIT arauetan eta giza eskubideen eta laboralen arau internazionaletan oinarrituta, hala nola, tokiko lan arauak (Social Accountability International, 2014).

Arau hau ondo aplikatzeko erakundeek kudeaketa sistema on eta eraginkor bat aplikatuko dute.

SA8000 araua edozein motatako erakundera zuzenduta dago, bere tamaina, lokalizazioa edo sektore industriala edozein izanda.

Erakundeek lege lokalak, nazionalak eta aplikagarriak diren beste lege batzuk bete behar ditu. Erakundeek, aldi berean, eranskinean jasotako nazioarteko printzipioak errespetatu behar dituzte; OIT hitzarmena edo Giza Eskubideen adierazpen unibertsala adibidez (**1. Eranskina**).

Gizarte erantzukizunaren baldintzak:

- **Haurren lana:** erakundeak ez du haurren lanaren alde agertu behar. Erakundeak ezarri behar du, dokumentatu, mantendu eta hain zuzen komunikatu behar du pertsonalari eta interesatuta daudenei politikak eta prozedurak haurren lana ekiditeko eta haur horiek eskolan egoteko haurrak izateari utzi arte.

Erakundeak langile gazteak kontratatu ditzake, beti ere nahitaezko heziketa legea errespetatuz. Hau da, langile gazteek lan egin dezakete eskola-ordutegietatik kanpo, baina ezin dute egunean hamar ordu baino gehiago egin eskolako eta laneko orduak zenbatuz eta ezingo dute egunean zortzi ordu baino gehiago ezta gaueko ordutegian lan egin.

Erakundeek ezin dute osasunerako edo garapen fisiko edo psikologikorako kaltegarriak edo zalantzazkoak diren baldintzak jarri langile gazteei.

- **Esplotazio praktikak:** erakundeek ez dute nahitaezko edo beharrezko lanak bermatuko, zigor-lanak barne. 29. hitzarmenak esaten duen bezala, ezin dira identifikazio agiri ofizialak kendu eta debekatuta dago langileari ordainketa bat egitera behartu lana hasi baino lehen. Bestalde, edozein erakundek ezin izango dute langile bati soldata atxikitzea lan egiten jarraitzeko helburuarekin. Erakundeek ziurtatu behar dute ez dutela kontratazio kuota edo kargurik aplikatuko langileei.

Langileek eskubidea izango dute instalazioak uztera lan-eguna amaitu ondoren eta askea da lana uzteko, beti ere erakundeari abisua ematen behar den denborarekin. Edozein erakunde ezingo du pertsonen salerosketa sustatu.

- **Osasuna eta seguritatea:** erakundeek osasuntsu eta segurua den ingurugiro bat sustatu behar dute istripuak saihesteko. Ingurugiroari kalte egiten dieten inpaktuak saihestu edo ezabatu behar ditu ahal den neurrian.

Organizazioek ama berrien, umedun edo bulardunen lan-giroa ebaluatu behar dute eta bertan ematen diren arriskuak ahal den neurrian gutxitu edo ezabatu, haien osasuna eta seguritatea ziurtatzeko.

Lanagatik arriskuak ematen jarraitzen badira, erakundeek langileei babesteko ekipazioa eman beharko die. Lanean edozein istripu gertatzen bada erakundeak lehen laguntza zerbitzua eta, beharrezkoa bada, mediku zerbitzua emango die langileei.

Organizazioek goi mailako zuzendari bat izendatu behar dute lan-giro seguru eta osasuntsua ziurtatzeko eta Arauaren Seguritate eta Osasun baldintzak ezartzeko arduraduna izango da ere.

Erakundeek seguritate eta osasun arloko formakuntza emango die langileei. Langile berriak sartzen badira erakundera hauek ere formakuntza jasoko dute.

Erakunde guztiek langile guztientzat osasun-zerbitzu garbiak, edateko ura, jateko garbiak dauden tokiak eta janaria gordetzeko toki garbiak eskainiko ditu. Bestalde, langileentzat lo egiteko tokiak eskaintzen baditu hauek seguruak eta oinarritzko beharrak asetzeko gai izan behar dira.

Amaitzeko, edozein arrisku larria ematen bada edozein erakundean langileek eskubidea dute arrisku horretatik aldentzeko erakundearen baimenik gabe.

- **Askatasun sindikala eta negoziazio kolektiborako eskubidea:** edozein langile eskubidea izango du nahi duen sindikatu batetan parte hartzeko, sortzeko edo antolatzeko eta hitzarmen kolektibo bat sortzeko. Erakundea aukera hau errespetatu behar du eta langileei aukera honi buruz informatu.

Askatasun sindikala eta negoziazio kolektiborako eskubideak legeak debekatzen duen lekuetan erakundeek langileak baimenduko dituzte nahi duten ordezkaria askatasunez aukeratzeko. Azkenik, ziurtatu behar dute sindikatuko kideek edo

langileek aukeratutako ordezkariak ez dutela diskriminaziorik, erasorik edo intimidaziorik jasango sindikatuko kidea izateagatik.

- **Diskriminazioa:** erakundeek ezin dute edozein pertsona diskriminatu edozein arrazoiengatik, hau da, kontratazioan edo soldatan diskriminazioa egotea arraza batekoa izateagatik, erlijioagatik, orientazio sexualagatik, desgaitasun batengatik edo beste edozerengatik.

Erakunde bakar bat ere ezin du mehatxuzko jarrerarik izan, abusuzko jarrerarik izan, esplotazio jarrerarik izan edozein lan-giroan.

Organizazioek ezin dute langileei haurdunaldi edo birjintasun probak egin.

- **Diziplina-neurriak:** erakundeek langile guztiei errespetuz eta duintasunez tratatu behar ditu. Ezin dute errespetu faltarik, zigor fisikorik ezta mentalik ere aplikatu langileei.

- **Lan-ordutegia:** erakundeek lan ordutegien legea errespetatu behar dute. Lan astea ezin da 48 ordu baino gehiagokoa izan. Langileek sei egun jarraian lan egin ondoren egun bat libre izateko aukera izango dute.

Ezohizko lan denbora boluntarioa izan behar da eta ezin da 12 ordu baino gehiagokoa izan. Batzuetan ezohizko orduak beharrezkoak izan daitezke produkzio eskariak handiak direnean eta ordu gehiago egitea beharrezkoa izango da erakundeak eskatzen badu.

- **Ordainsariak:** erakundeek oinarritzko ordainsari duin bat errespetatu behar dute eta lan aste bateko ordainsariak legea betetzen dutela ziurtatu behar dute. Ordainsariak nahikoak izan behar dira langileen oinarritzko beharrak asetzeko.

Organizazioek ezin dute ordainsarrietan dedukziorik egin diziplina neurri moduan. Aplikatuko dira bi baldintza hauek betetzen direnean:

- A. Ordainsarrietan dedukzioak egitea neurri diziplinari moduan legeak bere baitan hartzen duenean.
- B. Kontratu kolektibo bat martxan dagoenean eta praktika hau baimentzen duenean.

Erakundeek ziurtatu behar dute ordainsarien detaile guztiak, idatziz, eta langileei emango zaie ordainketa aldi bakoitzaren prestazioen konposaketa.

Erakundeek soldata guztiak eta prestazioak langileei forma legal batean entregatuko dituzte, baina inola ere atzeratutako edo murriztutako eran.

Ezohizko lan-orduak tokiko legeak definitzen duenaren arabera edo kontratu kolektiboak definitzen duenaren arabera konpentsatuko dira. Ezohizko lan-orduak legearekin erregulatuak ez dauden herrialdeetan edo kontratu kolektibo bat ez dagoenean, langileei ordainduko zaie erakundeak ezarritako prima batekin.

- **Kudeaketa-sistema:** erakundeen zuzendariek idatzizko politika bat egingo dute langileei informatzeko SA8000 Araua jarraituko dela, behar den hizkuntzetan idatzita.

Politika honek SA8000 Arauak eskatzen dituen baldintzak onartzen dituztela barneratuko du eta erakundeek konpromisoa hartzen dutela Araua betetzeko.

Politika hau eta SA8000 Araua ikusgarriak diren lekuetan argitaratuko dira.

Erakundeek, aldizka, politika honen eta SA8000 Arauaren berrikuspenak egingo dituzte baldintzak betetzen diren berrikusteko eta ahal den neurrian hobekuntzak egiteko (Social Acoountability International, 2014).

3.5 EMAS

Edozein erakundera zuzendutako kudeaketa eta auditoria sistema bat da, erakundearen aktibitatea eta tamaina edozein izanda. Europar komisioren 1221/2009 Erreglamenduan definituta dago eta sistema eraginkor bat proposatzen du lan ambientala hobetzeko eta kudeatzeko. Hala ere, EMAS ekimenak ezartzeko ISO 14001 araua betetzea derrigorrezkoa da eta arau honek jartzen dituen baldintzaz aparte beste baldintza gehigarri batzuk bete beharko dira (AENOR, d.g)

EMAS ezberdintzen duen oinarritzko faktore bat datu ambientalei buruz informatzeko, Ingurumen Adierazpena bitartez egiten du.

Ingurumen Adierazpena, dokumentu publikoa da. Erakundeak idatzizko txosten bat argitaratuko du, bertan ingurugiroarekin hartzen diren jarrerak azalduko dira eta hauek hobetzeko hartuko diren neurriak.

Gutxienez, erakundearen aurkezpen bat izango du (aktibitatea, eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak azalduz), politika ambientalaren eta honen kudeaketa sistemaren laburpen txiki bat, erakundeak ingurugiroari zuzendutako helburuak azalduz, oinarrizko ingurumen indikatzaile eta egiaztatzaileen izena, zenbakia eta data.

Erreglamenduaren baldintzak ezarri eta gero, AENOR arduratuko da egiaztatzen baldintzak eta Ingurumen Adierazpena.

AENOR-rek baldintzak eta Ingurumen Adierazpena egiaztatu ondoren, erakundeak eska dezakete Europar Batasunaren Erregistroan sartzea eta EMAS lizentzia jasotzea.

ISO 14001 arauarekin bateragarria izateaz aparte, EMAS beste kudeaketa sistemekin bateragarria da, bai ingurugiroarekin erlazioa duten beste sistemekin, bai kalitatearekin erlazioa dutenekin eta seguritatea eta osasunarekin erlazioa dutenekin ere.

ISO 14001 arauarekin lortzen diren abantailaz aparte, EMAS-rekin beste hainbat abantaila lor daitezke:

Abantaila ambientalak:

- Kudeaketa ambientalaren hobekuntza ingurugiroko inpaktuak gutxituz.
- Produkzio prozesuetan berrikuntza ekologikoa sustatzea.

Lidergo eta irudi enpresarialean abantailak:

- Irudi enpresarialaren hobekuntza eta errefortzua.
- Aginte publiko, hiritar, akzionisten, langileen eta bezeroen aurrean konfiantza eta sinesgarritasun handiagoa.
- Ingurumen Adierazpena publikoa izateagatik komunitate lokalarekin erlazioa hobetzea.
- AENOR-eko ingurumen kudeaketa sistemen ziurtagiria lortzeko aukera izatea.

Abantaila ekonomikoak eta komertzialak:

- Europar eremuan negozio gehikuntza.
- Ingurumen alderdien kudeaketa on bati esker etekin ekonomikoak lor daitezke epe luzera.

- “Erosketa berdea” prozesuak ematean negozio aukera berriak eman daitezke merkatuetan.
- Lan taldeen, pertsonen eta lan lekuen hobekuntza.

3.6 ISO26000 (RSC)

Erakundeek eta haren interes taldeek gero eta gehiago aitortzen dute gizartearekiko jarrera erantzulea hartzea oso beharrezkoa dela. Gainera, garapen jasagarria bultzatzeaz aparte, gizartearekiko jarrera erantzulea izatea hobekuntzak ekar ditzake erakundearen atal estrategikoetan.

Izan ere, erakunde batek gizarte erantzukizuna planteatzen duenean barneratzea bere aktibitateetan, sarritan ez daki oso argi nondik lortu dezakeen informazioa hau ezartzeko. Horretarako, ISO 26000 sortu zuten, arazo eta egonezin hauei bide bat zabaltzeko.

Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea (ISO: International Organization for Standardization) gobernuz kanpoko instituzioa da normalizazio eta estandarizazio antolaketako ordezkari ez eratuta dago industrial eta komertzial arau internazionalak egiteko.

ISO-k ekimen boluntarioak garatzen ditu balio gehigarri bat ematen dituen hobekuntza klabeak egin nahi dituzten erakundeei, hala nola, kalitatean, ekologian, seguritatean eta ekonomian, besteak beste.

2010eko azaroaren 1ean ISO 26000ren gida argitaratu zuten eta garrantzia handia hartu zuen GE-ren eremuan.

ISO 26000-k GE-ri buruzko printzipio, funtsezko materiak eta horrekin erlazionatutako gaiei buruzko informazioa ematen du eta nola erakundeek prozedura ezberdinak praktikan jarri dezaketen. Edozein motatako erakundeei zuzenduta dago, sektore publiko zein pribatuei, gobernuz kanpoko erakundeei, bere tamaina edo kokapen geografikoa edozein izanda. ISO 26000ren helburua , GE ezarri nahi duen edozein erakundeentzat gida bat izatea da.

ISO 26000 argitaratu baino lehen, existitzen ziren beste kode batzuk zeinetan GE-ri buruzko informazioa ematen zen baina ez nola izan behar zen prozesua hau ezartzeko. ISO 26000ekin lehenengo aldiz lortzen da GE-ren zein printzipio, funtsezko materiak eta gaiak tratatu behar diren hau martxan jartzeko eta zer egin behar duen erakunde batek helburu guzti hauek martxan jartzeko.

2001eko apirilean, kontsumitzaileen politikari buruzko ISO komiteak (COPOLCO), txosten bat argitaratu zuen GE-ri buruzko printzipioei buruz. COPOLCO taldeak GE-ri buruzko azterketa sakon bat egitea proposatu zuen eta horretarako lan-talde bat proposatu zuten. Orduan, ISO-ren kontsultarako talde bat sortu zuten ISO-ren Gerentzia Teknikoen komitea (TMB) GE-riburuz aholkatzeko.

2004ko ekainean ISO-ren hitzaldi internazionala ospatu zen GE-ren gaia tratatzeko. Hitzaldi horretan 355 herrialde parte hartu zuten (33 herrialde garatuak eta beste 33 garapen bidean dauden herrialde) eta hainbat sektore (pribatua, publikoa eta gizarte zibila). Hitzaldi honen helburua ISO-k GE-ren lana bere gain hartu behar zuela edo ez eztabaidatzea zen eta horrela izatekotan zein moduan egingo zen. TMB taldeak proposamena onartu zuen.

Horretarako TMB taldeak beste talde baten sorkuntza proposatu zuen (ISO/ TMB/ WG/ SR)behin betiko dokumentu bat egiteko GE-ri buruzko lerro zuzentzaile boluntarioak finkatzeko. 2005eko urtarrilean, azken talde honek lanari hasiera eman zion eta hainbat hitzaldi eman ondoren eta iritziak jaso ondoren, 2010ko azaroaren 1ean ISO 26000 argitaratu zuten.

Laburtuz, ISO 26000-a dokumentazio prozesu, iritzi bilketa, eztabaida homegeneizazio eta esfortzu handiko prozesu oso luzea izan zen.

ISO 26000-ren ezaugarri nagusiak **(3.taula)**.

3.taula: ISO 26000-ren ezaugarri nagusiak

1. Arau globala da, mundu osorako pentsatuta. Edozein motatako erakundeei zuzenduta dago, herrialde garatu edo garapen bidean dagoen herrialde batean jarduten duen edozein izanda.

2. Eredu bakarra da, aplikagarria bai enpresa komertzialei edo instituzio publikoei, sindikatuei, partidu politikoei, irabazi asmorik gabeko erakundeei ... tamaina handiko edo txikiko enpresei, pribatuei, publikoei ... honekin esan nahi du GE ez dela soilik enpresen kontua, gizarte osoko erakundeena baizik.
3. Adostasunez eginda dago.
4. GE-ri buruzko idei orokor bat ematen du.
5. ISO 26000 ez da arau juridikoa, betebeharrezko araua, baizik eta orientabideak ematen ditu soilik.
6. Arau boluntarioa da.
7. Ez dago egiaztatzekorik. Betebeharrak ez dituenetz, orientabideak dituenetz, ezin da esan erakunde batek araua betetzen duen edo ez egiaztatu.
8. Ez da kudeaketa sistema bat eta bateragarria da edozein motako kudeaketa sistemekin.
9. Eraginkorra izaten saiatzen da.
10. GE-ri buruzko bisio bateratu bat eskaintzen du.
11. Ulertzeko hizkera erraza erabiltzen du.
12. Iradokizun, idei eta argibide asko ditu praktikan jartzeko.

Iturria: Elaborazio propioa

ISO 26000ak, gutxienez, hurrengo zazpi printzipioak kontuan hartzea aholkatzen die erakundeei. Printzipio horien garrantzia berdina da guztietan, hau da, printzipio guztiek garrantzi berdina dute.

1. Kontuen ematea: ISO 26000-ak erakundeak bultzatzen ditu kontuak ematera inpaktu ekonomikoari, sozialei eta ingurumenari buruz. Honekin erantzukizuna eskatzen du izaten duten inpaktu negatiboekin eta neurriak hartzera hauen kontra.

2. Gardentasuna: ISO 26000-ak erakundeak aholkatzen ditu gardenak izatera gizaritari eta ingurugiroari eragin zuzena duten aktibitateetan. Horrela, erakundeari behartzen dio interes-talde guztiei informazioa ematera ulertzeko erraza den hizkera batean.
3. Jarrera etikoa: ISO 26000-ak aipatzen du garapen jasangarriarekin erantzukizuna izateko erakundeek zintzotasun, ekitate eta osotasun irizpideak izan behar dituztela. Hau da, erakundeak ez du soilik etekin ekonomikoa bilatu behar, baizik eta gizarte eta ingurugiroarekin erlazioa duten inpaktu positiboak maximotzea.
4. Interes-taldeen interesei errespetua: ISO 26000-aren gidak aipatzen du interes-taldeen beharrak eta interesak kontuan hartu behar direla eta horregatik, ISO 26000-ak aholkatzen du interes talde hauek kontuan hartzera erabakiak hartzerakoan.
5. Legalitatearen printzipioari errespetua: ISO 26000-ak aholkatzen du legalitatearen printzipioa errespetatzea. Hau da, erakunde guztiek legeak bete behar dituzte eta abian dauden GE-ri buruzko legeak betetzea.
6. Portaeraren arau internazionalari errespetua: ISO 26000-ak gonbidatzen ditu erakundeak arau internazionala betetzera, nahiz eta arau honek printzipio sozial eta ingurugiroaren kontra joan. Eta azken hau ematen bada, erakundeek GE-ren kontrako portaera hauek saihestu beharko lituzkete.
7. Giza eskubideei errespetua: ISO 26000-aren gidak aipatzen du erakundeak giza eskubideak errespetatu behar dituela eta hauek betetzen ez badira erakundeak bere eskuetan dagoen guztia egingo du eskubide hauek errespetatzeko eta babesteko.

ISO 26000ak GE-ri buruzko zazpi gai garrantzitsuak identifikatzen ditu edozein erakunde kontuan hartu behar dituen gizarte erantzukizunari buruzko estrategiak ezarri nahi baditu. Hauek dira gizarte erantzukizunaren zazpi gai garrantzitsuenak: erakundea gobernatzea, giza eskubideak, praktika laboralak, ingurugiroa, eragiketa justuen praktikak, kontsumitzaileen praktikak eta komunitatearen partizipazio aktiboa eta garapena.

Gai hauetan erakundeak kontutan hartu behar diren puntuak barneratzen dira, baina ez dira derrigorrez garatu behar, bai erakundearentzat nabarmenak ez direlako, bai erakundearentzat lehentasunezkoa ez delako.

Horregatik, ISO 26000ak gai hauek kontutan hartzera animatzen ditu erakundeak, guztiak garrantzi berdina dituztelako eta bata bestearekin konplimentatzen direlako.

Amaitzeko, ISO 26000ak hainbat pausu eskaintzen ditu GE praktikan nola jartzeko azaltzen dituztenak (Argandoña eta Isea, 2011).

3.7 Global Reporting Initiative

GRI 1997.urtean eratu zuten lehen aldiz bi erakunde ez gubernamentalen artean, CEBES (Coalition of Environmentally Responsible Economies) eta PNUMA (Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente) jasangarritasun memorien erabilera eta kalitatea sustatzeko. Ekimen honen garapenerako hainbat enpresen, erakundeen, sindikatuen ... ordezkariak parte hartu dute (Balaguer eta Caballero,d.g).

Lanaren hurrengo atalean sakonago azalduko dut zer den GRI, zertan datzan, zeintzuk dira bere indikatzailleak eta enpresek nola erabiltzen duten.

Orain arte landu ditudan ekimenak kontutan hartuz, hauen artean dauden ezaugarri nagusienak sintetizatuko ditut ikuspuntu orokor bat eskainiz GE-ri buruz.

4. KORRUPZIOA

Lanaren puntu honetara helduta, esan dezaket GE atalean azertu ditugun giza adierazleak jakin mina sortu didate, baina bereziki korrupzioaren gaiak. Jakin min hau gaur egun bizi ari garen egoera dela eta izan daiteke, non datuak, informazioa eta ezagunak diren pertsonaiak legez kanpoko hainbat jarrera egiten ari diren. Honegatik guztiagatik, atal honetan korrupzioan zentratuko naiz korrupzioaren definizio bat ematen saiatuko naiz, kontzeptu honekin erlazionatutako jarrerak zeintzuk diren aipatuko ditut, korrupzioaren dimentsioak zeintzuk diren aipatuz eta korrupzioari aurre egiteko zenbait ekimen.

Korrupzioaren definizio zehatz bat ematea oso zaila da kontzeptu aldakor eta ondo definituta ez dagoelako. Horretarako hainbat elementu identifikatuko ditugu:

1. Funtzio, zeregin edo erantzukizun, publiko edo pribatua, beste baten zerbitzura boterea edo eragina duen norbait.
2. Botere edo eragin horretatik eratorri den zuhurtzia baimentzen du pertsona horri erabaki batzuk hartzea.
3. Boterea edo eragina duenak izango dituen betebeharrak bere karguan edo funtzioak lan egiten duen Administrazioan, enpresan edo instituzio batean.
4. Boterea edo eragina duen horrek ekitaldi batean gaizki jokatzeari eta honek erakundearen lan egitea.
5. Gaizki jokatzeari etekin pribatu bat ateratzea erakundetik.

Korrupzioa administrazio, enpresa edo instituzioko aktibo baten eskuratze edo erabilpen txar bat izan daiteke, eta normalean gardentasun faltagatik edo informazioa ezkutatzeagatik gertatzen da.

Lehen aipatu dudana bezala, korrupzioa lege, erregelamendu, arau, kontratu edo konpromisu bat haustearekin bat etorriko da, beti ere ustela den pertsona lan egiten duen administrazio edo enpresaren interesen arabera jokatzeko badu.

Korrupzioa, normalean, hiru agenteen artean ematen da. Alde batetik, herritarrak edo sektore pribatua deitzen ditugunak eta hauek izaten dituzten harremanetan korrupzioa eman daiteke sektore publikoko agenteekin, hau da, gobernatzaileekin eta

funtzionarioekin. Gobernatzailerak eta funtzionarioen artean korrupzioa eman daiteke ere, baina herritarrek izango dira korrupzio horren eragileak.

Korrupzioaren ekimena herritarren eskutik ematen bada eroskeria esaten zaio, eta ekimena gobernatzailerak edo funtzionarioen eskutik ematen bada estortsioa esango zaio. Herritarrek guzti hau egin dezakete korrupzioaren eremuan: ordaindu behar duten zergen zenbatekoa gutxitzen saiatu, sektore publikoko ondasun edo zerbitzu bat eskuratzea erabakitakoa baino gutxiago ordaintzen edo eskubidea ez duten zer edo zer eskuratzen, sektore publikoari ondasun edo zerbitzu batzuk saltzen saiatu prezio altu batengatik, zigorrak edo zanak ekidin ... e.a. Bestalde, gobernatzailerak eta funtzionarioek guzti hau egin dezakete korrupzioa emateko: herritarren eskubideak gutxitu edo ukatu, herritarrei zerga altuak eskatu, gobernatzailerak funtzionarioen eskubideak edo soldadak manipulatu dezakete korrupzio kontuetan sartzeko gobernatzailerak onurako ... (Argandoña, 2000)

Laburtuz, korrupzioak ez du definizio zehatz bat eta Argandoñaren ustez (2009), hurrengo hitzak erabil ditzakegu korrupzioa zer den eta noraino heldu daitekeen zehazteko:

- **Trukea:** etekin-ordainsari baten truke izaten da bi pertsonen edo gehiagoren artean.
- **Arauen haustea:** korrupzioa jarrera ezmorala da moralezko baloreen eta arau legalen kontra doana.
- **Boterearen gehiegizko erabilera:** ustelak direnak haien etekin propiorako erabiltzen dute haien boterea.
- **Biktima zuzenen falta:** korrupzioak ez ditu zuzenean biktima zuzenak sortzen, baina korrupzioan parte hartzen dutenak etekin bat lortzen dute. Eta horregatik korrupzio ekintza horretatik kanpo gelditzen direnak biktimak izango dira.
- **Sekretismoa:** ustelak direnak haien intimitatean erabakiko dute zeintzuk izango diren haien helburu, abantaila ilegalak eta abantaila ezmoraleak (Argandoña, 2009).

Korrupzioa hiru dimentsiotan banatu daiteke: ekonomikoan, sozio-politikoan eta etikokoan (Argandoña, 2000)

1. Dimentsio ekonomikoa: korrupzioak hainbat efektu negatiboak eragiten ditu.
 - a) Baliabide erabileran eraginkortasunik ez, produkzioaren distortsioa, kalitatearen galera, denboraren erabilpen txarra. Honengatik, korrupzioaren ondorioak jasan duten herrialdeen hazkunde tasa gutxitu daiteke eta atzerriko inbertsioen murrizketa ekar ditzake.
 - b) Errenta eta aberastasunaren birbanaketa: talde batzuen aberasketa bidegabea (eta legez kontrako kapitalen irteera), errenten banaketan desberdintasun handiak. Guzti honek enpresa txiki eta berriei asko eragiten die eta ekonomia murgilduta bultzatzen du.
 - c) Egiturazko efektuak: eragile ekonomikoak aldatzen ditu: norgehiagoka gutxitzen du, merkatu eta instituzioen gardentasun falta, ziurgabetasuna handitu daiteke eta sistema ekonomikoa arriskuan jar dezake.
2. Dimentsio sozio-politikoak: korrupzioak erabaki prozesuak distortsionatzen ditu eta aukerak sortzen ditu batzuentzat, baina beste batzuentzat, berriz, kosteak suposatzen ditu, gizalegezko askatasuna murrizten du eta beste eremu batzuetara hedatu daiteke.
3. Dimentsio etikoa: gobernatzaile, funtzionario, zuzendari edo langile batek, lehen aipatutako zeregin bat egiten badu, bere karguren zereginak ez ditu betetzen. Ordaintzen duenak etekin bat lortzeko edo arazo bat ekiditeko korrupzioari laguntzen dago.

Dimentsio etikoak hurrengo gaineratzen die beste bi dimentsioei: korrupzioak eragiten dituen ondorioak pertsonetan eta gizartean orokorrean eragina du eta hauek eragin txarrak izango dituzte pertsona hauen izaeran. Hau da, korrupzioak aldaketak eman ditzake pertsonen edo gizartearen pentsaeran, ezagueran, trebetasunean ... eta aldaketa hauek eragina izan ditzakete etorkizunean hartuko duten erabakietan.

Orain arte aipatu dudana korrupzioa definitzen edo korrupzioaren kontzeptua argitzen saiatzen da, baina garrantzitsua da aipatzea korrupzioarekin erlazionatuta dauden hainbat elementu edo kontzeptu:

- **Eroskeria:** ekimena ordainketa egite duena hartzen duenean, adibidez, ordain ekonomiko bat arrazoi zehatz batengatik.

- **Estortsio:** ekimena ordainketa jasotzen duena hartzen duenean, adibidez, enpresa baten isilpeko informazioaren zabalketaren mehatxua jasotzen duenean ordainsari ekonomiko baten truke.
- **Ordainketen, oparien eta mesedeen gehiegizko erabilera:** erlazio onak ezartzeko ematen dira. Ez da beharrezkoa faboreak berehala jasotzea, izan daiteke etorkizunerako izatea. Horregatik, garrantzitsua da enpresak definitzea zein egoerak onartu daitezkeen edo ez eta hauen erregistro bat eramatea enpresaren barneko eta kanpoko pertsonak babesteko.

Eremu honetan kontuan hartzekoak dira eman daitezkeen hainbat egoera, hala nola, enpresa bateko langile edo zuzendari bati opariak edo ordainketak egitea etorkizunean zerbait lortzeko helburuarekin; erakunde finantzarioen zuzendariei ordainketak egitea mailegu bat eskatzerako orduan baldintza hobeak lortzeko; enpresa bateko giza baliabideen arduradunari ordainketak egitea langile edo zuzendari baten lan kontratu bat ziurtatzeko ...

- **Errazte ordainketak:** ordainketa mota hauek herrialde askotan ez dira legalak. Ordainketa hauek hornitzaileak behartutako ordainketak izan daitezke enpresek duten eskubideak errazteko edo bizkortzeko. Ordainketa mota hauek normalean izaten dira funtzionario bati egiten zaizkion ordainketak ziurtagiri edo baimen baten tramiteak bizkortzeko, adibidez.

Bestalde, korrupzioarekin erlazionatzen diren beste jarrera edo jokaera batzuk:

- **Interesen gatazkak:** interesen gatazken kontzeptua korrupzioa baino kontzeptu zabalagoa da, hala ere batzuetan bi kontzeptu hauek nahasten dira. Arazo hau ematen da interes pertsonal bat enpresen interesen aurrean jartzen direnean eta jarrera lizun eta gardentasun faltarekin amaitu daitezke.
- **Patrozinioaren gehiegizko erabilera:** oso arrunta izaten da jarrera mota hau. Enpresaren izena ekitaldi ospetsu batekin lotzea, adibidez, kirol edo kultural jarduera batekin. Baina enpresek ziurtatu behar dira lortuko duten

etekina soilik enpresarentzat izango dela eta ez langile, zuzendari edo hirugarren batentzat.

- **Zalantzazko kontribuzio politikoak:** aurrekoarekin oso lotuta dago, baina partidu politiko edo hautagai bati ekarpen bat eginez. Beharrezkoa da erabakia gardentasunez hartzea eta zuzendaritzaren onarpenarekin. Oso garrantzitsua da ekarpen hori noiz egitea korrupzioarekin lotu daitekeelako, adibidez, enpresak negozioazio prozesu baten erdian badago lizentzia edo kontratu publiko bat lortzeko korrupzioarekin lotu dezakete.
- **Iruzur, bidegabeko erabiltzea eta lapurtzea:** hiru kontzeptu hauek oso lotuta daude korrupzioaren kontzeptuarekin. Iruzurra, bidegabeko erabilerak eta lapurtzea egoera batetik aprobetxatzea da etekin pertsonal bat lortuz eta eragin negatiboak dituenak langileentzat, zuzendariarentzat eta enpresarentzat. Baina iruzurra ez da soilik enpresaren barnetik eman behar, baizik eta enpresaren kanpoko pertsonetatik etor daiteke. Iruzur batengatik salatua izateak enpresarentzako ondorio txarrak ekartzen ditu, kostu ekonomikoak ekartzen dituelako eta enpresaren irudia zikindu dezake.
- **Diruaren garbiketa:** sarrera ilegalen jatorria ezkutatzearen edo disimulatzearen prozesua da enpresaren legezko kapitalean bihurtzeko. Jarrera hau herrialde askotan ez da legala, baina beste batzuetan bai eta horregatik kontu handiz ibili behar dira beste herrialde bateko enprekin erlazionatzen direnean.
- **Nepotismoa eta faboritismoa:** kargu baten boterea erabiltzea lagun, senide edo bazkide baten mesederako, kontrataziorako edo mailaz igotzeko.
- **Informazioaren manipulazioa:** informazio pribilegiatuaren erabilera txarra etekin pertsonal baterako.

Guzti honekin ondorioztatu dezakegu korrupzioa ez dela soilik jarrera ezkutatua edo ordainketa ezkutatu bat, baizik eta langile baten edo zuzendari baten jarrera baten huts egitea hauek duten enpresaren konpromisoarekiko.

Eta zergatik enpresek uko egin behar dute korrupzioari? Korrupzio jarrerak ematen diren enpresetan etekinak aurkitzen dira epe laburrera, hala ere, ez dira kapazak izaten

etorkizunera begiratzeko eta ulertzeko korrupzio garapenerako eta hazkunderako oztopoa denik eta korrupzioak dituen ondorioak epe luzera edo ertainera enpresaren gainbehera ekar ditzaketela eta gainera, ondorio horiek eremu enpresarialean eta ekonomia mundialean eraginak izan ditzaketela. Horregatik, Argandoñak esaten duen moduan (2009), “ enpresa batek jarrera ustelez funtzionatzen duena, bere buruaren gain kontrola ez duen enpresa bat da.”

Azken urteetan, korrupzio kasu asko eta asko eman dira. Adibidez, pasa den urtarrilean, korrupzioaren kontrako operazio batean 24 pertsona atxilotu dituzte Valentzian, Taula Kasua izena eman diotena. Korrupzioaren kontrako operazio hau Valentziako udalean zentratzen da, bereziki, udala gobernatu zuen PP partidu politikoan. Hala ere, beste bi herrialdeetako udalak ikertu dituzte, Alikanten eta Castellonen.

Atxilotuen artean, Alfonso Rus, Aldundiaren eta Valentziako PP-ren lehendakari ohia dago, Valentziako alkate ohia, Rita Barberá, eta Generalitatearen lehendakari ohia, Gerardo Camps. Azken bi hauek forudunak direnez, soilik Auzitegi Gorenak akzio penalak zuzendu ditzake haien kontra.

Korrupzio kasu honetan parte hartu duten guztiek, alde batetik, komizioak jasotzen zituzten esleipen publikoen truke, eta bestetik, Valentziako PP-ko kideek finantziario irregularrak zituztela susmoa zuten.

Ikertu direnen artean, Maximo Caturla Valentziako Aldundiaren lehendakariorde ohia dago. Honek Ciegsa enpresaren kontseilari delekatua izan zen, Generalitatearen enpresa publikoa ikastetxeak egiten zituena, pasa den hamarkadan 1.000 milioi eurotako ez ohiko sarrerak izan zituelako.

Ikertzaileek, ibilgetuen inbertsio irregularrak, hauetako batzuk atzerrian egindakoak eta kontratazio irregularrak ikertu dituzte Aldundian, azken jarrera hau ondorioak izan ditzake beste partidu politikoetan eta ez soilik PP partiduan (El País, 2016)

Aipatzekoa den beste kasu bat Nóos Kasua da. Kasu honetan Iñaki Urdangarinek, Infanta Cristinaren senarrak eta Infanta berak ere, epaituak izaten ari dira. Nóos

Kasuan Iñaki Urdangarin eta bere bazkidea Diego Torres ikertuak izaten ari dira Etxe Errealaren izen onaz bidegabekiz aprobetxatzeagatik.

Urdangarinek hiru urtetan 6 milioi euro lortu zituen kontratu publikoei esker. Gero, Nóos, Urdangarinen enpresa, faltsuak ziren zerbitzuei esker fakturatzeko merkataritzazko sozietateetan, Urdangarinek eta Torres-ek kontrolatzen zituztenak. Sozietate horien artean Aizoon sozietatea dago, Urdangarin eta Infanta Cristinaren sozietatea. Lortu zituzten irabazi horien zati handi bat paradisu fiskaletan amaitu zen, adibidez, Londresen eta Belizen.

Orain arte 18 pertsona salatuta daude eta 100 urtetako kartzela-zigorrak izan dezakete. Infanta Cristinak Manos Limpias sindikatuak salatu du eta 8 urteko kartzela zigorra eskatzen du delitu fiskalengatik. Baina oraindik epaiketa ekidin dezake Botín Doktrina aplikatzen badiote.

Bestetik, Juan Carlos Erregea ikertuta izango da, Diego Torresen e-mailak esaten duten moduan, Juan Carlosek Urdangarinek eta bere bazkidea egin zuten eragiketen berri zuelako (El Mundo, videoa)

Jarraian, korrupzioak eragiten dituen hainbat arrisku aipatuko ditut:

- **Arrisku pertsonalak:** korrupzioak eragin zuzenak ditu enpresaren langileetan eta langileak enpresan duen konfiantza galtzea eragiten du. Langile baten espedienteetan korrupzio jarreraren bat aurkitzen bada langilearen lan ibilaldia eta ospea suntsitu dezake eta ondorio penalak izan dezake (isunak edo atxilotzea), zibilak eta laboralak baita ere. Kasuaren arabera, langile batzuk probetxua atera nahi izango dute, beste batzuek haien errendimendua gutxituko dute haien desadostasuna adierazteko eta beste batzuek haien lanpostua bertan behera utziko dute.
- **Arrisku enpresarialak:** enpresa ustel batek faltsukeri kontablean eta fiskalean jauzi dezake, informazioaren gardentasuna galduko du eta zenbait erakunde publikoko zerrenda beltzetan ager daiteke. Gainera,

enpresaren bizirik irauteko ahalmena eta etorkizuneko errentabilitatea gutxitzen da.

- **Arrisku ekonomiko, sozialak eta legalak:** korrupzioaren jarduera ezberdinak herrialde gehienetan ez dira legalak, hortaz, korrupzio kasuren bat argira ateratzen bada enpresak kantitate altuko isunak eta lizentzien galera eta kartzela zigorrak ekar ditzake korrupzio jarduera bultzatu edo egin duten langile edo zuzendarientzat.

Baina arrisku pertsonala hain handia da? Kontutan hartzen da? Egun, gero eta ohikoagoa da telebista piztea eta korrupzio kasuak ikustea. Azken aldi honetan pertsonai publiko asko eta asko korrupzio kasuren batekin erlazionatu dute. Azkenekoa Panamako Paperak Kasua izan da. Kasu honetan hainbat eta hainbat pertsonai publiko sartuta daude. Honekin esan nahi dut, arrisku pertsonaletan aipatutakoari erreferentzia eginez, korrupzioak eragin zuzenak izan ditzakeela enpresen eta langileen irudian eta ospean, baina kasu hauek ikusita esan dezakegu gaur egun arrisku pertsonala ez dela hainbesteko. Panamako Paperak Kasuaz aparte, egunero hainbat eta hainbat korrupzio kasu ikusten ditugu, gehienak partidu politikoetako kideekin erlazionatuta. Honekin esan nahi dut gizartea erabat itsu dagoela. Gizartearentzat idealak diren pertsonak horiek gero eta ustelagoak dira, baina behin eta berriz hautatuak ateratzen dira. Zergatik? Arazoa da, gizarteak ez dela kontzientea zer garrantzitsua den korrupzioa eta zer arazo edo ondorio ekar ditzakeen. Horregatik, nire ustez, beharrezkoa da gizartea informatua egotea eta korrupzioa zer eragin dituen jakitea eta desagertzen den diru horiek zelako eraginak dituen gizartean.

Korrupzioaren kontrako errefusa hainbat ekimen ekarri ditu korrupzioaren kontra borrokatzeko eta hau ekiditeko, hala nola, Nazio Batuen Munduko Itunaren 10.printzipioa (aurreko atalean aipatuta) , ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat(aurreko atalean aipatuta), Korrupzioaren kontrako Aliantza ekimena (PACI), besteak beste. Orain, aipatutako ekimenetatik Korrupzioaren kontrako Aliantza ekimena (PACI) sakonago aztertuko dut, beste bi ekimenak aurreko atalean aztertu ditudalako.

Korruptzioaren kontrako Aliantza ekimena (PACI: Partnerist Against Corruption Initiative):

Ekimen hau hainbat entitateen eskutik aurrera atera zen, Nazioarteko Merkataritza Ganbara, ELGA, Transparencia Internacional, Nazio Batuen Munduko Ituna eta garapen banku eta instituzio finantzario batzuk, hain zuzen.

PACI-k korruptzioa ekidin nahi duten sektore desberdinetako enpresak batzen ditu konpromiso politiko bat hartzen korruptzioaren aurrean tolerantzia ez duena eta eraginkorrak diren barneko programak ezarriz.

Abantailak: PACI ekimenak Eroskeriaren kontrako Printzipioak garatu ditu. Printzipio hauek oso erabilgarriak dira ekimenari batutako enpresentzat korruptzioaren arazoari aurre egiteko eta eraginkorrak izan daitezkeen praktikak abian jartzeko korruptzioa ekiditeko edo erausteko. Gainera, ekimenari batutako enpresen konpromisoa ziurtatzeko PACI ekimenak txosten bat sinatzera behartu ditu ekimenari batutako enpresei eroskeria ez onartzeko eta enpresen barruan korruptzioaren kontrako programa bat ezartzeko. Honela, enpresak korruptzioaren kontrako mezu argia emango du eta korruptzio joerak definitzeko arazoak ekidingo ditu.

PACI-ren Printzipioak: ekimen hau bi printzipio nagusietan oinarritzen da.

- Enpresek korruptzioa debekatuko dute kargu publiko batean nahasten denean; hautagai, partidu politiko edo partiduaren kargu batean nahasten denean; sektore pribatuko langile batekin nahasten denean.
- Enpresek korruptzioaren kontrako programa eraginkor bat garatzeko edo ezartzeko konpromisoa hartuko dute.

Baina nola ekidin dezakegu korruptzioa? Korruptzioari aurre egiteko ONUren Munduko Itunak hurrengo hiru elementuak kontuan hartu behar direla dio:

1. **Barneko akzioa:** hasteko, korrupzioaren kontrako politikak eta neurriak ezarri behar dira enpresan, baita korrupzioak ekar ditzakeen ondorioak ebaluatu ere.
2. **Kanpoko akzioa:** geroago, beste enprekin partekatuko dira hartutako politikak eta neurriak.
3. **Akzio kolektiboa:** azkenik, posiblea izango litzateke beste enpresa batzuekin akordio batera heltzea eta estrategia kolektibo bat egitea korrupzioaren kontra. Prozesu honetan nahi duten enpresek hartu dezakete parte, ekimen boluntarioa izango da, eta enpresek aparte gobernua eta gizarteak ere har dezakete parte. Baina kontuan hartzekoa da akzio kolektiboa ez dela gauza erraza eta lan handia, pazientzia handia eta esperientzia behar da aurrera eramateko.

Lanaren atal honetan korrupzioaren definizio bat bilatzen saiatu naiz, baina kontzeptu oso aldakor bat denez hainbat elementu identifikatzen saiatu naiz. Alde batetik, korrupzioa non eman daiteke eta nortzuk egin dezaketen eta korrupzioa noraino heldu daitekeen azaldu dut. Bestetik, korrupzioaren dimentsioak aipatu ditut eta korrupzioarekin erlazionatuta dauden elementu edo kontzeptuak (eroskeria, estortsioa...). Atala bukatzeko, azaldu dut zergatik enpresek uko egin behar duten korrupzioari, zelako arriskuak izan ditzaketen eta korrupzioaren kontrako ekimen bat azaldu dut.

Hurrengo atalean Global Reporting Initiative (GRI) ekimena sakonago azalduko dut, baina bereziki korrupzioan zentratuko naiz. Hau da, GRI memoriak dituzten korrupzioaren indikatzaileak aztertuko ditut eta IBEX 35-eko enpresen GRI memoriak aztertuko ditut enpresa hauek korrupzioa nola egiten duten aurre ikusteko. Hau posiblea ez balitz, aztertu ditudan ekimenetan zentratuko naiz eta hauek korrupzioa nola tratatzen duten aztertzen saiatuko naiz.

5. GIZARTE ERNTZUKIZUNA SUSTATZEKO EKIMENEN AZTERKETA KORRUPZIOAREN INGURUAN

Atal honetan GRI ekimena sakonago aztertuko dut. Hasteko Global Reporting Initiative zer den azalduko dut, noiz hasi ziren GRI memoriak egiten eta zertan datzan memoria hauek.

Global Reporting Initiative (hemendik aurrera GRI) 1997.urtean sortu zuten Bostonen, CERES (CERES: Coalición de Economías Responsables del Medio Ambiente) eta PNUMA (PNUMA: Programa de Medio Ambiente de las Naciones Unidas) erakundeen eskutik. GRI-k jasangarritasun txostenak egiteko gida bat egin zuten lehenengo aldiz 2000.urtean.

GRI nazioarteko erakunde bat da, enpresak, gobernuak eta hainbat erakunde laguntzen duena gaur egun jasangarritasunarekin zerikusia duten gai garrantzitsuak kontutan hartzeko, aldaketa klimatikoa, giza eskubideak, korrupzioa, beste batzuen artean (GRI, Kontsulta data: 2016 apirilak; www.globalreporting.org).

Jasangarritasun txosten hauek egiteko gida GRI egindakoa da eta bere erabilpena boluntarioa da. Gaur egun, 300 enpresa baino gehiago aplikatzen dute, enpresa edozein sektorekoa izanda. Txosten hauetan enpresen jasangarritasunari buruzko hiru puntu garrantzitsuak ebaluatzen dute, “ *triple botton line*” edo emaitzen kontu hirukoitza deitzen dena: gai ekonomikoak, sozialak eta ingurugirokoak (Balaguer eta Caballero, d.g).

GRI-ren helburu nagusia enpresek edo erakundeek jasangarritasun memoriak egitea da, enpresa edo erakunde horiek jasangarriak izatea eta ekonomia mundialari laguntzea (GRI, Kontsulta data: 2016 apirilak; www.globalreporting.org).

GRI erakundearen misioa jasangarritasun memoriak ohiko jarduera bezala egitea da, enpresa eta erakunde guztiak haien jarduerari buruzko inpaktu ekonomikoak, sozialak eta ingurugirokoak nolakoak diren informatzeko.

GRI memoriak aurkeztea barneko eta kanpoko abantailak izan ditzakete. Alde batetik, barneko abantailak hurrengoak izan daitezke: arrisku eta aukeren ulermen handiagoa, errendimendu finantzario eta ez finantzarien arteko ezberdintasunak aurkitzeko

erraztasuna, epe luzeko estrategian, kudeaketa politiketan eta negozio planetan eragin handiak izan ditzake, kostuen murrizketa eta eraginkortasunaren hobekuntza, jasangarritasun gaiekin konparaketak egitea nazioarteko lege eta arauen artean, barneko funtzionamenduaren konparaketa beste erakundeekin ... eta abar.

Beste alde batetik, kanpoko abantailak aurki ditzakegu: ospearen hobekuntza eta markaren leialtasuna, inpaktu sozialetan, ambientaletan eta gobernu negatiboetan inbertsioak eginez ... eta abar.

Jasangarritasun txosten bat era orekatuan eta zentzuzkoan egiteko GRI-k garrantzi handia ematen dio hainbat printzipio eta adierazleei. GRI-k ez du nahi printzipio hauek era zehatz batean adieraztea, baina printzipio hauetakoren bat ez bada betetzen aipatu behar dute zergatik ez duten bete.

GRI-k hamaika printzipio aipatzen ditu lau taldetan sailkatuta eta guztiak haien artean erlazionatuta daudenak:

- Memoriaren markoa: gardentasuna, osotasuna eta auditatu daitekeena.
- Memorian sartu beharreko informazioa: zehaztasuna, garrantzia, jasangarritasun testuingurua eta auditatu daitekeena.
- Kalitatea eta egiazkotasuna: zehaztasuna, neutraltasuna, konparatu daitekeena eta auditatu daitekeena.
- Memorien sarbidea: argitasuna, aldizkotasuna eta auditatu daitekeena.

Ikus daitekeenez, lau taldeetan aipatzen da memoria hauek auditagarriak izan behar direla. Hau da, memorieta sartzen den informazio guztia auditoreek eta gaian adituak direnek gai izan behar dute informazio hori auditatzen eta bertatik ondorioak ateratzen.

Lehenengo GRI memoriak 1999 argitaratu zuten G1 izenarekin. Denbora aurrera joan ahala, memoria hauek eguneratuz joan dira. Bigarren eguneraketa 2002.urtean egin zuten G2 izenarekin, hirugarrena 2006.urtean G3 izenarekin eta azken eguneraketa 2013.urtean egin zuten G4 deituz. Lan honetan G4 memorieta zentratuko naiz (Mediaresponsible, d.g).

G4 gidaren laugarren bertsioa da eta 2013. urteko maiatzean argitaratu zuten. G4 gidak duten helburu nagusia ulertzeko oso erraza da: memoriak egiten dutenei laguntzea jasangarritasun txosten ona egiten eta jasangarritasun memoria hauek egitea gauza normala bihurtzen laguntzea (Global Reporting Initiative, d.g).

Malguak eta nazioarteko garrantzia izateko eginak izan dira. Hau da, G4 memoriak edozein motatako erakunde, edozein motatako sektorekoak eta tamainakoak egiteko eginak izan dira.

GRI-ren beste bertsioak bezala, G4 gidak kode-desberdinen arabera eta jasangarritasun arauen arabera diseinatuta dago. Horrela, beste nazioarteko markoekin bateratuta dago, hala nola, ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalekin, Nazio Batuen Munduko Itunaren printzipioekin eta abar.

G4 gidak bi zatitan banatzen da: alde batetik, memoriak egiteko printzipioak eta oinarritzko edukiak. Atal honetan, printzipioak eta oinarritzko edukiak deskribatzen dira eta erakundeek jarraitu behar duten irizpideak azaltzen dira jasangarritasun memoriak idazteko. Bestetik, aplikazio gidaliburua. Gidaliburu honetan azaltzen da nola aplikatu behar diren beste atalean aipatzen diren printzipioak, nola antolatu behar den informazioa eta gidan aipatzen diren kontzeptuak nola interpretatu behar diren (Global Reporting Initiative, 2015).

G4 memoria bat egiterakoan, kontuan hartu behar den kontzepturik garrantzitsuena materialtasuna da. Hau da, alderdi materialak erakundearen alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurugirokoak dira eta erakundearen gainean pisu handia dutenak erabakiak hartzeko orduan.

G4 memoriak egiten duten erakundeek eta gidaren arabera egiten badute bi aukera izan dituzte: berezko aukera eta aukera sakona. Edozein erakunde aplikatu dezake edozein aukera, erakundearen tamaina, sektorea edo kokapena edozein izanda.

Berezko aukera jasangarritasun memorien oinarritzko kontzeptuak dira. Aukera honek marko bat osatzen du non erakundeek sortzen dituzten inpaktuak transmititzen duen jarduera ekonomiko, sozial eta ingurugiroaren ondorioz. Bestalde, aukera sakonak berezko aukera garatzen du eta era berean, erakundeen estrategiari, analisiari, etikari,

gobernuari eta osotasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak barneratzen ditu. Bai lehen aldiz memoriak egiten dituzten erakundeek eta bai esperientzia dituztenak memoriak egiten haien premiei egokitzen den aukera hobereana aukeratu behar dute eta haien interes taldeek eskatzen duten informazioa barneratzen duena.

G3 eta G3.1 bertsioak erabiltzen dituzten erakundeek eta G4 egiteko asmoa dutenek 2015eko abenduaren GRI erakundearekin kontaktuak jarri behar dira eta jarraitu behar duten urratsak emango dizkie. 2015eko abenduaren 31tik aurrera publikatzen diren memoriak G4 bertsioak izan behar dira.

Memoriak egiteko printzipioak oinarrizkoak dira gardentasuna lortzeko eta beraz, erakunde guztiek aplikatu behar dituzte haien jasangarritasun memoriak egiten dutenean. Printzipio horiek bi taldetan banatzen dira: memorien edukiak zehazteko printzipioak eta memorien kalitatea zehazteko printzipioak.

Memorien edukiak zehazteko printzipioak memorian zer sartu behar den erabakitze prozesua deskribatzen dute interes-taldeen nahietatik abiatuta. Memorien edukiak zehazteko printzipioak lau printzipio dira:

- Interes taldeen parte hartzea: erakundeek aipatu behar ditu zeintzuk diren bere interes taldeak eta nola erantzun den haien interesei.
- Jasangarritasun testuingurua: memoriek aurkeztu behar dute erakundearen jarduera jasangarritasun testuinguruan.
- Materialtasuna: memoriek barneratu behar dute erakundearentzat garrantzitsuak diren efektu ekonomikoak, sozialak eta ingurugirokoak eta eragina dutenak erabakiak hartzeko orduan.
- Sakontasuna: memoriek erakundearen aspektu materialak eta bere estaldura aztertu behar dute aspektu ekonomikoak, sozialak eta ingurugirokoak islatzen eta interes-taldeek adostutako epean erakundearen jarduera analizatu behar dute.

Bestalde, memorien kalitatea zehazteko printzipioak informazioaren kalitatea eta aurkezpen on bat erabakitzeko balio dute. Memorien kalitatea zehazteko printzipioak sei printzipio dira:

- Oreka: memoriak erakundearen jarduerak eragiten dituen alderdi positiboak eta negatiboak aipatu behar ditu.
- Konparatu daitekeena: erakundeek informazioa hautatu, batu eta aurkeztu behar du era sistematiko batean.
- Xehetasuna: memoriaren ematen den informazioa zehatza izan behar da interes-taldeek erakundearen aktibitatea ebaluatu dezaten.
- Puntualtasuna: erakundeek adostutako datan aurkeztu behar dute informazioa interes-taldeek behar den momentuan jasotzeko eta haien erabakiak ondo egituratuak izan daitezten.
- Argitasuna: erakundeek informazio argia eta interes-taldeen eskura argitaratu behar dute.
- Fidagarritasuna: erakundeek informazioa batu, erregistratu, ikertu eta sakabanatu behar dute eta jarraitu dituen prozesuak memoria egiteko gero ebaluatu ahal izateko.

G4 gida jarraituz, bi oinarrizko kontzeptuak existitzen dira. Alde batetik, oinarrizko kontzeptu orokorrak ditugu. Kontzeptu hauek jasangarritasun memoriak egiten duten erakunde guztiei eragiten die. Kontzeptu hauek zazpi ataletan banatzen dira: estrategia eta analisia, erakundearen profila, aspektu materialak eta estaldura, interes taldeen parte hartzea, memoriaren profila, gobernua eta etika eta osotasuna.

Beste alde batetik, oinarrizko kontzeptu espezifikoak ditugu. Kontzeptu hauek hiru mailatan sailkatzen dira: maila ekonomikoa, maila ambientala eta maila soziala. Era berean, maila soziala beste lau mailatan banatzen da: lan-praktikak eta lan duina, giza-eskubideak, gizartea eta erantzukizuna produktuen gain. Kontzeptu hauek neurtzeko hainbat adierazle ematen ditu gidak. Adierazle hauek erakundearen jarduerari buruz ematen du informazioa edo erakundeak duen inpaktu ekonomiko, sozial eta ingurugiroari buruz. Argiago ikus dezakegu laburpen taula batean (**2. Eranskina**).

2.eranskinean ikus daitekeenez, adierazle asko ditugu maila bakoitzerako. Lan honetan korrupzioaren kontrako adierazleak aztertuko ditut gizartearen azpimailan sailkatuta daudenak. Gizarte azpimaila honek azaltzen du erakundeek duten eragina gizartean eta haien inguruan edo komunitatean. Komunitate hauek hurrengo eskubide

unibertsaletan oinarritzen dira: Nazio Batuak, Giza Eskubide unibertsalen deklarazioa (1948); Nazio Batuak, Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Ituna (1966); Nazio Batuak, Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna (1966); eta Garapenaren eskubideari buruzko Nazio Batuen deklarazioa (1986).

Identitateari dagokionez, komunitate hauen eskubideak bai eskubide indibidualetan baita kolektiboetan oinarritzen dira.

G4 memoriaren gidan 3 adierazle dira korrupzioaren kontrakoak:

- G4-SO3: korrupzioarekin erlazionatuta dauden arriskuak ebaluatu diren zentroen zenbaki eta portzentaiak eta antzemandako arrisku adierazgarriak: adierazle honetan korrupzioarekin erlazionatuta dauden arriskuak ebaluatu diren zentroetan adierazi behar dira eta antzemandako arrisku adierazgarriak deskribatuko dira. Adierazle honek erakunde bateko ebaluazioan aurkitu diren arriskuen gradua neurtzen du. (Global Reporting Initiative, 2015).
- G4-SO4: korrupzioaren kontrako borrokari buruzko politikak eta hartzeko prozedurak: adierazle honetan agertu behar dira erakundearen gobernu organoaren kideak korrupzioaren kontrako politikari eta prozedurei buruz informatuak izan direnen zenbakia eta portzentaia lurraldez lurralde banatuta, eta gauza bera langileekin eta bazkideekin eta kide hauek jasan duten korrupzioaren kontrako kaptazioaren zenbakia eta portzentaia ere. Komunikazio eta kaptazio honek korrupzioaren kontrako kontzientzia ahalbideratzen du.
- G4-SO5: baieztatutako korrupzio kasuak eta hartutako neurriak: adierazle honetan korrupzio kasuen zenbatekoa eta zergatia azaldu behar da. Korrupzio kasu horietatik zeintzuk izan dira zigortuak eta horietatik zenbat langile, bazkide edo erakundearekin zer ikusia duen edonork kaleratua izan den zenbakia. Korrupzioa kontuan hartzeko arrisku oso garrantzitsua da edozein erakunderako (Global Reporting Initiative, 2015).

Korrupzioaren kontrako borrokaren adierazle guzti hauek ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionaletan eta Nazio Batuen Munduko Itunaren hamar printzipioetan oinarrituta daude.

5.1 Korrupzioaren azterketa GE-ren ekimen ezberdinetan oinarrituz

Kontuan izanda G4 memoriaren korrupzioaren kontrako adierazle hauek saiatu naiz IBEX-35eko enpresen jasagarritasun memoriak aztertzen eta bereziki korrupzioaren kontrako adierazle hauek, baina informazio falta dela eta ezin izan dut horrela aztertu. Nire helburua G4 memoriak aztertzea zen, baina lehen aipatu dudan moduan, 2015eko abenduaren 31 arte ez zen derrigorrezkoa izaten G4 memoriak argitaratzea eta horregatik enpresa askok ez dute oraindik eredu hori argitaratzen. Horregatik, lanaren aurreko atalean aztertu ditudan ekimenak berriz aztertuko ditut baina orain korrupzioari buruzko zer informazio ematen duten aztertuz.

Horretarako taula batean adieraziko ditut ekimen guzti horiek eta bertatik ondorioak aterako ditut.

Lanaren atal honetan, orain arte landu ditudan ekimenak taula batean barneratuko ditut eta nire ustez zazpi ekimen horien atal garrantzitsuenak aipatuko ditut. Alde batetik, araua sortu duen entitatea aipatuko ditut eta araua noiz egin den eta zein izan da arauen azken berrikuzpena. Beste alde batetik, garrantzitsua da aipatzea zer arau motak diren, zein helburu dituzten eta korrupzioari buruzko zer informazio ematen duten(4.taula).

4.taula: Ekimenen konparazio taula

Araua	Sortutako entitatea	Urtea	Arau mota	Helburua	Korruptioari buruzko informazioa
Munduko Ituna	Nazio Batuak	2000	GE bultzatzeko ekimena.	10 printzipio unibertsalak txertatzen saiatu eta Nazio Batuen helburu zabalduenak bideratzen lagundu.	10.printzipioa korruptioari aurre egiteko bideratuta dago
ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat	ELGA	1976 Azken berrikuzpena 2011	Enpresa multinazionalentzako gomendioak dira.	Aurrerapen ekonomiko, ingurumen eta mundu osoko enpresetan ekarpen positiboa sustatzeko.	Erakundeei eskatzen die edozein motatako debekatutako ordainketak, kontratuak ... ekiditea.
AA1000 araua	Accountability	1999 Azken berrikuspena 2008	Auditoria araua.	Kontabilitate etiko eta sozialaren kalitatea, auditorien eta txostenen kalitatea handitzeko.	Ez du korruptioari buruzko aipamenik egiten.

SA8000 araua	Social Accountability International	2001 Azken berrikuspena 2014	Auditatu daitekeen araua.	Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazioan, OIT arauetan eta giza eskubideen eta laboralen arau internazionaletan oinarritzen da.	Ez du korrupzioari buruzko aipamenik egiten.
EMAS	AENOR	2009	Lan ambientala hobetzeko eta kudeatzeko araua.	EMAS ezberdintzen duen oinarrizko faktore bat datu ambientalei buruz informatzeko, Ingurumen Adierazpena bitartez egiten du.	Ez du korrupzioari buruzko aipamenik egiten.
ISO 26000 araua	Estandarizaziora ko Nazioarteko Erakundea	2010	Kudeaketa araua	Balio gehigarri bat ematen du hobekuntza klabeak egin nahi dituzten erakundeei, hala nola, kalitatean, ekologian, seguritatean eta ekonomian ...	Eragiketa justuen praktikak atalean korrupzioa aipatzen du kontuan hartzeko jarrera bezala. Gaietik aipatzen du.

GRI	Global Reporting Initiative	1997	Jasangarritasun un memoriak bultzatzeko ekimena.	Jasangarritasun memoriak ohiko jardura bezala egitea.	Gizartearen azpimailan korrupzioaren kontrako 3 adierazleek korrupzioa kontutan aztertzen dute.
------------	-----------------------------	------	--	---	---

Iturria: Elaborazio propioa

Taulan ikus daitekeen moduan, orain arte zazpi ekimen aztertu ditut.

Hasteko, kontutan hartu behar dugu aipatu ditudan ekimen guztiak boluntarioak direla eta ez dutela erakundeak behartzen ekimenei gehitzeko. Hau da, edozein erakunde gehitu daiteke ekimen hori egitera nahi duelako.

Aztertu ditudan ekimen guztiak ezberdinak dira, hau da, ekimen bakoitza helburu ezberdinak dituzte. Munduko Itunak edozein motatako erakundeentzat zuzenduta dago eta honen helburu nagusia 10 printzipio unibertsalak txertatzen saiatzen da. ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat, izenak esaten duen moduan enpresa multinazionalentzat zentratzen da eta mundu osoko enpresetan aurrerapen ekonomiko eta ingurumen ekarpen positiboa sustatzen du.

AA1000 arauak, auditoria arau bat da, kontabilitate etiko eta sozialaren kalitatea, auditorien eta txostenen kalitatea handitzeko helburua du eta arau honek 3 serieetan banatuta dago: AA1000APS printzipioen araua, hiru printzipio finkatzen dituena; AA1000AS jasangarritasuna segurtatzeko araua eta AA1000SES interes taldeen konpromisoaren araua. Aipatzekoa da, arau honek ez ditu urratsak ematen praktikan jartzeko, soilik urrats teorikoak ematen ditu.

SA8000 arauak Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazioan, OIT arauetan eta giza eskubideen eta laboralen arau internazionaletan oinarritzen da araua egiteko eta hainbat baldintza bete behar dituzte erakundeek araua betetzeko.

EMAS ekimena edozein erakundera zuzendutako ekimena da, lan ambientala hobetzeko eta kudeatzeko helburua duena. Baina beste guztiak ez ezik, EMAS ekimena praktikan jartzeko ISO14001 araua betetzea derrigorrezkoa da eta azken arau honek jartzen dituen baldintzaz aparte beste baldintza batzuk bete beharko ditu aplikatu nahi duen erakundeak.

ISO 26000 arauak kudeaketa arau bat da. ISO 26000 gida baten modukoa da eta garrantzi handia du GE eremuan. GE-ri buruzko printzipio, funtsezko materialak eta horrekin erlazionatutako informazioa ematen du. Honen helburu nagusia, GE-ri buruzko gida bat izatea da.

Jarraian, ekimen hauek korrupzioari buruzko zer informazio ematen duten aztertuko ditut banan-banan.

Hasteko, Nazio Batuen Munduko Itunak 10.printzipioan tratatzen du korrupzioa. 10.printzipioak honela esaten du: “Enpresa guztiek korrupzioaren kontra lan egin behar dute, estortsio eta eroskeria barne.”

2004ko ekainaren 24an, Nazio Batuen Munduko Itunak iragarri zuen korrupzioaren kontrako 10.printzipio bat barneratuko zuela Munduko Itunean parte hartzen zuten erakundeei galdeketa egin ondoren.

10.printzipio honek Munduko Ituna sinatzen duten erakundeei ez ditu soilik konprometitzen estortsio, eroskeria eta edozein motako korrupzio jarduerak saihestera, baizik eta korrupzioaren kontrako politikak eta programa zehatzak garatzera ere. Erakundeei gobernuekin, ONU-ko agentziekin eta gizarte zibilarekin batzeko ideia planteatzen zaie gardentasunezko ekonomia global bat bilatzeko (Munduko Ituna, 2009).

Aztertu dudan bigarren ekimena ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat dira. Ekimen honek korrupzioari buruzko hainbat gomendio ematen ditu ELGA-ren lerro zuzentzaileen txostenean.

Alde batetik, korrupzioarekin erlazioa duten edozein motatako jarduerak saihestera gomendatzen du, hala nola, langile, bazkide, hornitzaile edo enpresarekin erlazioa duten edonork ezin du legalak ez diren abantailak eskaini.

Beste alde batetik, ekimen hau jarraitzen duten enpresek barne kontroleko programak egin behar dituzte eta etika programak edo neurriak hartu behar dituzte korrupzioari buruzko jarrerak eta kasuak saihesteko. Programa horiek prozesu finantzario eta kontableak barneratu behar dituzte ziurtatzeko etekin horiek ez direla ezkutuan erabiliko. Gainera, programa hauek aldizka berrikusi beharko dira.

Enpresek korrupzioaren kontrako aktibitateetan, eroskeria eta estortsio kasuetan gardentasuna hobetu behar dute. Era berean, enpresen langileak informatu behar dituzte barne kontroleko programei buruz eta enpresek hartzen dituzten politikak korrupzioaren kontra borrokatzeko.

Enpresek ez dute legalak ez diren ordainketak egingo kargu publikoko langileei, partidu politikoei ezta edozein motatako erakunde politikoei ere (ELGA, 2011)

ISO 26000 ekimena aztertu dudanean korrupzioari buruzko oso informazio gutxi ematen du. ISO 26000 gidaren eragiketa justuen praktiken atalean aipatzen du. Esaten du korrupzioari aurre egiteko erakundeek politikak eta praktika zehatzak ezarri behar dituztela. Ez du beste ezer esaten (Argandoña eta Isea, 2011).

Korrupzioari buruzko informazioa ematen duen azken ekimena GRI da. Lehen azaldu dudan moduan, GRI erakundeak denboran zehar memorien eguneraketak egin ditu. Azkeneko eguneraketa 2013 urtean izan zen G4 izenarekin. Memoria horietan korrupzioaren kontrako borrokarako adierazle ematen ditu eta adierazle horien bitartez erakundeek informazioa eman dezakete korrupzioaren inguruan.

AA1000 ekimenarekin jarraituz, ekimen honek ez du korrupzioari buruzko aipamenik egiten eta ekimen hau bezala SA800 eta EMAS ekimenek ere ez.

Korrupzioa kontzeptua hain garrantzitsua izanda nola da posible GE-ri buruzko azken hiru ekimen hauek aipamenik ez egitea? Esan beharra dago aztertutako ekimenak batzuk GE-ren oinarrizko alderdietan oinarritzen direla. Hau da, batzuk faktore ekonomiko, sozial eta ingurumeneko faktoreetan oinarritzen direla, baina beste batzuk faktore batean soilik oinarritzen direla.

6. ONDORIOAK

Lanaren helburua GE-ren garrantzia zein den, nolako eboluzioa zen den eta no la ezartzen duten enpresek izanda eta garatu ditudan ataletan aztertutakoan oinarrituz hurrengo ondoriozta dezakegu:

Denboran atzera egiten badugu, GE-ren kontzeptua antzinatik dator, baina 90.hamarkaan indar handia hartu zuen. Gaur egungo krisiak eta gizartearen desorientazioak GE-ren kontzeptuak garrantzi handia hartu du egoera honetan enpresek nola jardun behar duten lagungarria izan delako. Esan dezakegu, beharrezkoa dela enpresek GE-ren kontzeptua kontutan hartzea eta haien baitan ezartzea. Uste dut oso garrantzitsua dela enpresak etekin ekonomikoak izatea, baina etikoki eta ingurugiroarekin arduratsuak izatea ere. Gizarte arduratsu batez apustua egiten badugu, enpresek edo erakundeek ardurua handia dute honetan. Haiek izan daitezkeelako gizarte honetan baliabide gehienak izan ditzaketenak eta haiek ez badira arduratsuak gizartearekin ezta ingurugiroarekin, nola izango da posible gizartea gai hauekin arduratsua izatea? Kontuan hartzekoa da GE pentsaera baten modukoa dela eta guztiok ez dugula berdin pentsatzen.

GE aurrera eramateko hainbat ekimen sortu dira orain arte. Lanean zazpi ekimen aztertu ditut, nahiz eta gehiago egon. Ekimenak GE lantzeko erreminta baliagarriak eta lagungarriak dira. Nire ustez, bizi garen gizartean gaur egun beharrezkoak direla ekimen hauek korrupzioari aurre egiteko. Egungo gizarteak ez da kontzientea zer nolako ondorioak dituen korrupzioak, eta ausartu naiteke esatera batzuek ez dakitela ezta zer den, arazo hain larria izanda. Gizarteitsu batean bizi gara eta ekimen hauek existituko ez balira korrupzioa larriagoa izango litzateke. Horregatik uste dut ekimen hauek derrigorrezkoak izan beharko litzatekeela eta ez borondatezkoak. Horrela, erakundeak kontrolatuagoak egongo lirateke eta arazo hauek ere.

Bestalde, beharrezkoa da gizartea informatua egotea korrupzio kasuetaz. Uste dugu korrupzio kasu horiek, egunero entzuten ditugunak, oso urrun ditugula, lapurtzen duten dirua guri ez digula arazorik edo ondoriorik sortzen, baina ez da horrela. Ez dute eragin zuzena guregan, baina epe luzean eraginak pairatu ditzakegu. Guzti honekin

esan nahi dut korrupzioa zer den, zertan datzan, zer ondorio ekar ditzakeen ... gizarteak jakin beharreko kontzeptu bat dela.

Korrupzioaren kontzeptuarekin erreparatzen badiogu, gaur egun ez dago definizio zehatzik eta batzuentzat badirudi ez dela erraza ezberdintzea. Dirudenez, egun korrupzioa modan jarri dela eta oso ohikoa dela gure herrialdean. Nire ikuspuntutik legea zorrotzagoa izan beharko lirateke gai honekin. Guztiok dakigu korrupzioari aurre egiteko ekimenak existitzen direla, baina nire ustez ez da nahikoa, zerbait gehiago egin beharko litzateke. Adibidez, kontzientziazio kanpainak, korrupzioa zer den ondo azaltzeko eta zer eragin edo arrisku izan ditzakeen argi uzteko. Ez dakit kanpaina horiek eraginkorrak izango direnik kontzeptuaren kudeaketan, baina arazo hain larria izanik saiatu daiteke.

Horrez gain, lanean aipatu ditudan hiru akzio korrupzioa ekiditeko, ONU-k proposatzen dituenak, kontuan hartzekoak dira erakunde guztiengandik. Baina nire ustez lehenengo akzioa, barneko akzioa, garrantzitsuena da. Erakundeek ez badute haien gain korrupzioaren kontrako politikak edo neurriak hartzen, nola egingo dute aurre korrupzio kasu baten aurrean? Erakundeek lehenak izan behar dira korrupzio kasu hauei aurre egiteko.

Atal enpirikoan GRI ekimena sakonago aztertu dut. Ekimen honek hainbat eguneraketa izan ditu denboran zehar, bereziki lau eguneraketa egin dira sortu zutenetik. Azkena G4 eredua izan da, 2013.urtean.

Ekimen horri gaur egun 300 enpresa baino gehiago batuta daude. Mundu mailako ekimena da eta edozein herrialdeko enpresak daude. GRI ekimena edozein motatako erakundeei zuzenduta dago, sektorea eta tamaina edozein izanda. Beste ekimen guztiak bezala, GRI ekimena boluntarioa da, baina ekimen hain garrantzitsua izanda, nire ustez, derrigorrezkoa izan beharko lirateke.

GRI ekimena gai sozialak aztertzeaz aparte, gai ekonomikoa eta ingurugiroko gaiak aztertzen ditu ere. Gai sozialen barnean hainbat azpimaila daude: laboral praktika eta lan duinaren azpimaila, giza eskubideen azpimaila, gizarte azpimaila eta produktuen gaineko erantzukizun azpimaila. Korrupzioaren kontrako borrokarako adierazleak gizarte azpimailaren barnean daude.

Korruptzioaren kontrako borrokarako adierazleak hiru dira G4 eremuan, aurreko atalean aipatutakoak. Adierazle horiek baliagarriak dira gizartea erakunde horiek gardenak diren ala ez jakiteko. Baina erakunde guztiek mota honetako informazioa ematen dute? Nire ustez, erakunde guztiek ez dute mota honetako informazioa ematen eta ematen dutenek ez dute esan behar den guztia esaten. Horregatik, uste dut adierazle hauek zehatzagoak izan behar direla eta aipatu dudana bezala, ekimen hau derrigorrezkoa izan beharko litzateke. Ez dut esan nahi erakunde guztiak batu behar direnik, baina enpresa handiak edo sektore horietan non korruptzioa pil-pilean dagoen, uste dut, beharrezkoa dela korruptzioa kontrolatuagoa egoteko.

Ekimen hau aztertzerakoan konturatu naiz erakunde guztiek oraindik ez dutela G4 eredia argitaratze, esan dudana bezala, 2015ko abenduaren 31 arte ez zelako beharrezkoa. Orduan, lehen aztertu ditudan zazpi ekimen horiek korruptzioaren ikuspuntutik sakonago aztertu behar izan ditut.

Lanaren zati horretan konturatu naiz aztertu ditudan ekimen horietatik hiru ekimen ez dutela aipamenik egiten korruptzioari buruz, AA1000 ekimena, SA800 ekimena eta EMAS ekimena.

Egia esan, ekimenak aztertu ditudanean ekimen bakoitzak GE-ren alderdi batean edo bestean zentratzen direla. Hau da, ekimen batzuk Ge-ren hiru alderdietan zentratzen direla eta beste batzuk soilik alderdi batean. Honekin ez dut esan nahi alderdi batek besteak baino garrantzitsuak direnik, baina uste dut hiru alderdi horietan korruptzioa gehien kontutan hartzen direnak bi ekimen izan direla, GRI eta Munduko Ituna. Korruptzioa aipatzen dituzten beste hirurak oso gaintik pasatzen dute gaia eta ez da horrela izan behar.

Nazio Batuen Munduko Itunak printzipio bat zentratzen du korruptzioaren kontrako borrokarako. Eta ELGA-ren lerro zuzentzaileak enpresa multinazionalentzat hainbat gomendio ematen ditu korruptzioari aurre egiteko. Baina ISO 26000 ekimenari erreparatzen badiogu, konturatu gaitezke korruptzioaren gaiari ia ez diola aipamenik egiten. Nire ustez, gida bat izanik GE nola aplikatu behar den jakiteko, korruptzioa aurre egiteko ekimen edo gomendioren bat aipatu behar duela.

Amaitzeko, lan hau egin eta gero konturatu naiz benetan zenbateko garrantzia duen gizarte erantzukizuna enpresa munduan eta zer eraginak dituen gizarte erantzukizuna kontutan hartzen ez bada. Gaur egun, gure gizarteak ez da kontzientea korrupzioa ez dela edozein gauza eta zerbait egin behar da pentsaera hori aldatzeko. Ez da erraza, bakoitzak modu batean edo bestean pentsatzen du, baina ez badugu ezer egiten egoera txarrera joan daiteke eta helduko da momentu bat non egoera jasanezina bihurtuko denik. Horregatik uste dut beharrezkoa dela gizartea kontzientziatzea arazo hauei buruz. Uste dut beharrezkoa dela gizarte erantzukizunari buruz ikertzen jarraitzea egoera aldatzeko metodo edo ekimen zorrotzagoak egiteko.

7. Bibliografía

AA1000 Accountability Principles Standard (2008). *Norma de Principios de Accountability AA1000APS*. Londres.

AA1000 Assurance Standard (2008). *Norma de Aseguramiento de Sostenibilidad AA1000 AS*. Londres.

Accountability Institute of social and ethical accountability (1999). AA1000. Londres.

AENOR (d.g), Verificación del esquema europeo de ecogestión y ecoauditoría EMAS. Madrid.

Argandoña, A. (2000). Corrupción: el punto de vista de las empresas. Documento de investigación nº422. IESE Business School, Universidad de Navarra.

Argandoña, A. eta Isea, R. (2011) *ISO 26000*, Una guía para la Responsabilidad Social de las Organizaciones. *Cuadernos de la Cátedra "la Caixa" de Responsabilidad Social de la Empresa y Gobierno Corporativo*, nº11. IESE Business School, Universidad de Navarra.

Argandoña, A. eta Morel Berendson, R. (2009) La lucha contra la corrupción: una perspectiva empresarial. *Cuadernos de la Cátedra "la Caixa" de Responsabilidad Social de la Empresa y Gobierno Corporativo*, nº4. IESE Business School, Universidad de Navarra.

Balaguer, A.I. eta Caballero, I. (datarik gabe). NTP 648: Responsabilidad social de las empresas. Modelo GRI (Global Reporting Initiative).

Blasco, J.L., 2014. Claves de la nueva directiva de reporting no financiero. KPMG blog. <http://www.kpmgresponsabilidadempresarial.es/claves-de-la-nueva-directiva-de-reporting-no-financiero/> (kontsulta data: 2015ko abenduan).

Comisión de las Comunidades Europeas (CCE). (2001). *Libro Verde: Fomentar un marco europeo para la responsabilidad social de las empresas*. Bruselas. COM (2001), 366 final.

Comisión de las Comunidades Europeas (CEE). (2011). *Estrategia renovada de la UE para 2011-2014 sobre la responsabilidad social de las empresas*. Bruselas. COM (2011), 681 final.

Cordero, C. eta de la Cruz, C. 2012 ¿ Qué es y por qué es importante la Responsabilidad Social en la sociedad actual?. Bizkaiko hirugarren sektorearen behatokia. www.3sbizkaia.org (kontsulta data: 2015ko urrian).

Europar komisioak 2014, *Diario oficial de la unión Europea*, Estrasburgo, 2014, p.L330/1

Garcia Polo, R. eta Barreno Malapert, C. (2013). Las líneas directrices de la OCDE para empresas multinacionales. *Diario Responsable*. (www.diariorresponsable.com, kontsulta data: 2016ko urtarrilean).

Global Reporting Initiative (2015). G4. Guía para la elaboración de memorias de sostenibilidad. Principios y contenidos básicos. Amsterdam.

Global Reporting Initiative (2015). G4. Guía para la elaboración de memorias de sostenibilidad. Manual de aplicación. Amsterdam.

Global Reporting Initiative (datarik gabe). Introducción a la G4. La nueva generación de memorias de sostenibilidad. Amsterdam.

Managing a Sustainable Business, S.L. (2011). *Norma AA 1000 Compromiso de los grupos de interés*. Madrid.

Medioresponsable (datarik gabe). Informes de sostenibilidad: presente y futuro. http://www.corresponsables.com/webfm_send/81 (kontsulta data: 2016ko apirilean).

Melé. D. (2007). Responsabilidad social de la empresa. Mas allá de la sabiduría convencional. Revista vasca de economía, *Ekonomiaz*, nº65, pp. 51-65 Gasteiz.

Mozas, A. eta Puentes, R. (2010), La responsabilidad social corporativa y su paralelismo con las sociedades cooperativas. *Revesco*, Vol (103), pp. 75-100.

Munduko Ituna/Global Compact: <http://www.pactomundial.org/global-compact/>

Observatorio de RSC, (2014). Introducción a la responsabilidad social corporativa. www.obserbatoriorsc.org

Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico-OCDE (2011). Líneas Directrices de la OCDE para empresas multinacionales. <http://dx.doi.org/10.1787/9789264202436-es>. (kontsulta data: 2016ko urtarrilean).

Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico-OCDE. (2011). Líneas directrices de la OCDE para empresas multinacionales. Revisión 2011. Paris.

Oficina del Pacto Mundial (2009). *Civismo empresarial en la economía mundial. El Pacto de las Naciones Unidas*. New York.

Social Accountability International (2014). *Responsabilidad Social 8000. Norma Internacional*. New York.

Toro, D. (2006). El enfoque estratégico de la responsabilidad social corporativa: revisión de la literatura académica. *Intangible Capital*, nº14, vol. 2, pp.338-358.

Videoa Caso Nóos: http://videos.elmundo.es/v/0_5rrlapoe-el-caso-noos-en-2-minutos?uetv_pl=0&count=0 (kontsulta data: 2016ko martxoan).

Zafra, I, Hernández. J.A. (2016ko urtarrilak 27). Operación taula: 24 detenidos en una operación anticorrupción centrada en Valencia. *El País*. http://politica.elpais.com/politica/2016/01/26/actualidad/1453798078_040910.html

ERANSKINAK

1. Eranskina: SA8000 ekimenak oinarritutako nazioarteko printzipioak

1. Convenio 1 de la OIT (Horas de Trabajo - Industria) y Recomendación 116 (Reducción de la Duración del Trabajo)
2. Convenios 29 (Trabajo Forzoso) y 105 (Abolición del Trabajo Forzoso) de la OIT
3. Convenio 87 de la OIT (Libertad Sindical)
4. Convenio 98 de la OIT (Derecho de Sindicación y de Negociación Colectiva)
5. Convenios 100 (Igualdad de Remuneración) y 111 (Discriminación – Empleo y Ocupación) de la OIT
6. Convenio 102 de la OIT (Seguridad Social – Norma Mínima)
7. Convenio 131 de la OIT (Fijación de Salarios Mínimos)
8. Convenio 135 de la OIT (Representantes de los Trabajadores)
9. Convenio 138 y Recomendación 146 (Edad Mínima) de la OIT
10. Convenio 155 y Recomendación 164 de la OIT (Seguridad y Salud de los Trabajadores)
11. Convenio 159 de la OIT (Readaptación Profesional y Empleo – Personas Discapacitadas)
12. Convenio 169 de la OIT (Pueblos Indígenas y Tribales)
13. Convenio 177 de la OIT (Trabajo a Domicilio)
14. Convenio 181 de la OIT (Agencias de Empleo Privadas)
15. Convenio 182 de la OIT (Peores Formas de Trabajo Infantil)
16. Convenio 183 de la OIT (Protección de la Maternidad)
17. Repertorio de Recomendaciones Prácticas de la OIT sobre el VIH/SIDA y el Mundo del Trabajo

18. Declaración Universal de los Derechos Humanos
19. Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales
20. Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos
21. Convención sobre los Derechos del Niño de las Naciones Unidas
22. Convención sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación contra la Mujer de las Naciones Unidas
23. Convención Internacional sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación Racial de las Naciones Unidas
24. Principios Rectores sobre las Empresas y los Derechos Humanos de las Naciones Unidas

Iturria: Social Acoountability International, 2014

2.Eranskina: G4 memorien kategoriak eta mailak

Categoría	Economía	Medio ambiente		
Aspectos ^{IV}	<ul style="list-style-type: none"> Desempeño económico Presencia en el mercado Consecuencias económicas indirectas Prácticas de adquisición 	<ul style="list-style-type: none"> Materiales Energía Agua Biodiversidad Emisiones Efluentes y residuos Productos y servicios Cumplimiento regulatorio Transporte General Evaluación ambiental de los proveedores Mecanismos de reclamación en materia ambiental 		
Categoría	Desempeño social			
Sub-categorías	Prácticas laborales y trabajo digno	Derechos humanos	Sociedad	Responsabilidad sobre productos
Aspectos ^{IV}	<ul style="list-style-type: none"> Empleo Relaciones entre los trabajadores y la dirección Salud y seguridad en el trabajo Capacitación y educación Diversidad e igualdad de oportunidades Igualdad de retribución entre mujeres y hombres Evaluación de las prácticas laborales de los proveedores Mecanismos de reclamación sobre las prácticas laborales 	<ul style="list-style-type: none"> Inversión No discriminación Libertad de asociación y negociación colectiva Trabajo infantil Trabajo forzoso Medidas de seguridad Derechos de la población indígena Evaluación Evaluación de los proveedores en materia de derechos humanos Mecanismos de reclamación en materia de derechos humanos 	<ul style="list-style-type: none"> Comunidades locales Lucha contra la corrupción Política pública Prácticas de competencia desleal Cumplimiento regulatorio Evaluación de la repercusión social de los proveedores Mecanismos de reclamación por impacto social 	<ul style="list-style-type: none"> Salud y seguridad de los clientes Etiquetado de los productos y servicios Comunicaciones de mercadotecnia Privacidad de los clientes Cumplimiento regulatorio

Iturria: Global Reporting Initiative, 2015

